

uk

182. zenbakia / 2010eko urriaren 4a



Urriak 13 > Azaroak 14

Iparra galdu gabe!

IV Jornadas sobre Iparralde

Herri ixilean
Argazki erakusketa
Exposición de fotos

Jon Cazenave
Argazkilaria
Bisita gidatuak

Cazenave
Txokolatea

Kanta afaria

Anje Duhalde
Daniel Landarti esker onez

Otto
Haurrentzako antzerkia
Teatro infantil

**Asisko Urmeneta
+ Peio Etchecopar**


**Pilota, mendi
ibilaldiak...**

+ INFO: www.getxo.net



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Lamiako barria.
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako zubia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Elisabeth Arrajo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Maidagango pasabidea (Getxo).
28. ARGAZKIA. Plentziako dantzaldia, XX. mende hasiera.
30. BERBETAN. Laura Mintegi.
34. FOTOGRAFIA. GETXOPHOTO.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Kimuak katalogoa.
43. MUSIKA. Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketa.
44. LIBURUAK. Kamele Igartua poeta. Erreseinak.
45. KIROLAK. Portu Zaharreko Javi Polo Urdaibaiko arraunlaria.
46. ELKARRIZKETA. Soraia Chacon, Sozial Hitz.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Berezi, Berango.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandioko Goi-Alde Dantza Taldea, 1965.
54. AITORMENAK. Arrate Illaro.

Azala: Hodei Torres

www.ukaldizkaria.biz



30 Laura Mintegi

Berbetan

PEN Klubaz, Egin, Egunkaria zein A. Luzarragaren kasuez, eta *Aclerazi EH!* ekimenaz jardun du Mintegi.



11 Elisabeth Arrajo



54 Arrate Illaro



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Armando Llamosas

> arkeologoa

Badoa gure industria-ondarea

Oporrak pasa ondoren gure paisaiatik bi elementu desagertu dira, kasualitatez biak Leioan: Dow Unquinesa eta Earle. Lehenengoa gerra ostean sortu zen Erandion; Earle, ordea, 1894an (Tubos y metales de Lamiaco zen bere jatorrizko izena). Asko kexatu gara bere kutsaduragatik, batez ere Dow-z. Baina paisaiatik ezabatzeak gure nortasunean ere zerbait ezabatzen du.

Eskualdea ez dugu oso aberatsa industria-ondareari dagokionez, Erandio eta Lamiako kenduta, jakina. Hauei, Urdu-lizko Mecanica la Peña gehi dakieke, eta, nola ez, Areetako Harino Panadera giza-joa. Leioako bi enpresa horiek oso zabalak dira (ziren) eta, dudarik gabe, desagertzeak onurak ekarriko dizkie auzokoei. Biak ibai ondoan (Asua eta Gobela hurrenez hurren), leku oso egokiak dira hirigintza-operazio handiak egiteko. Lamiakokoa auzoaren berrikuntzaren barruan dago. Dow, ordea, irla bat zen Astrabudua eta Leioa artean, irla kimiko eta kutsatzaila hain zuzen ere. Auzokideek eskertuko dute aldaketa.

Hala ere, ezin da ahaztu enpresa horiek gure auzoak ulertzeko ezinbestekoak direla. Nola uler daiteke Lamiako auzoa Gobela inguruan zeuden enpresarik gabe? Ondarea da, alde batetik historikoa, eta horretarako historialariek ikertu eta kontatu ere egingo digute. Bestetik, industria-ondarea, egitura eta azpiegiturretan gure industriaren prozedurak eta teknikak adierazten baitziren. Desagertuko dira. Bai Dowek bai Earlek kontserbatzeko egiturak zituzten. Ez osoa, jakina, baina bere egituraren ikerketa egin ondoren pabiloi bat, edo azpiegitura bat gorde zitekeen gure industriaren lekuko izateko eta bere ekoizpena-prozedurak erakusteko. Normalean, kasu hauetan tximinia uzten



da. Tximiniak ez dira izorratzen, eta eskultura bezala geratzen dira. Ez egin hori mesedez. Norbaitek esan zuen tximinia horiek ez zirela industriaren lekuko, lotsaren lekuko baizik, ondarea kontserbatzen ez jakitearen lotsa.

Udal-arkitektoek, bai Leioakoek bai beste udaletakoek, pentsatu behar dute enpresa horiek industria-aurri eta lur esparru gozoaz gain, gure ondarea kon-

tserbatzeko, zabaltzeko eta hiritarrei erakusteko erronka galanta direla, haien funtzioen artean dago eta jakin badakite nola egin.

Kontuz ibil gaitzen! Gure eskualdeko industria ondarea desagertzeaz dago. Urrun, zikin eta itsusia izan omen da orain arte, baina konturatzen bagara, hurbil, gure nortasunaren isla eta kuttun izan liteke. ○

gu geu**“Ai amatxo, ez dut hazi nahi...”**

“...ai amatxo, negua dut zain”. Negua ez, baina udazkena gainean dugu. Zuhaitzetatik hostoak erortzen diren bezala, eroriko zaizu UK etxeko postontzian. Udazkenean bezala, Getxoko Antzerki Jardunaldiak, Berbalagun taldeak, bertsolari txapelketak eta antzoki eta taberna barruko planak heldu dira. Horiek biltzen saiatu gara 182. zenbaki honetan.

Aurreko zenbakian aurreratu bezala, badaude ikasturte barriagaz batera aldatu diren UK-ko hostoak, loreak. Oraingoan, Armando Llamosas arkeologoaren kolaborazioa ekarri dizugu. Eskualdeko ondarearen inguruko hausnarketak ekarriko dizkigu algortarrak bi hilean behin. Ongi etorri Armando UK-ko familiatxora! 181. zenbakian trugoi artean ibili zen paiatarrak ere, Erandio aldera eroango gaitu oraingoan, “Ohi dan lez” atalean.

Hori paperean jaso duguna. Baina, zuetako askok, telefonoz ere gure barri izan duzue azken asteotan. Harpidedunen (zure) iritzia jakin guran marka dugu zure zenbakia UK-ko telefonoan. Batzuk gustura hartu dute gure deia, beste batzuk aldiz, ez hainbeste. Iritziak ere denetariakoak izan dira; denei ondo etorri. UK zuena ere badelako, gurea, guztiona, delako! Sortu eta elikatu UK!


UK-ko lantaldea

... baina zatituta darrai/ Leioako Lamiako auzoa duzu irudi honetan. Azken hileotan eraikin zahar asko bota dire erdigunean, orain gurxi eraitsi dute zutik zirauen azkena. Horregatik ikus daiteke eliza trenbidetik bestaldera. Orube handia geratu da, gauza asko egin litezke bertan, auzoaren zatiketa amaitzeko aukera proposa izan liteke. Baina trenbidea dago erdian, eta eraikinak botata ere, saihestu ezineko harresia da. Metroa lurperatzeko une egokia izan daiteke, auzotarrek horretan pentsatuko zuten seguruenez, agian Udalak ere? Batek daki: ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA

GEHITU KIROLA

WWW.GETXO.NET/GEHITU/ webgunean Getxoko kirol elkarteei buruzko argibideak aurkituko dituzu: harremanetarako datuak, entrenamenduak, euskararen aldeko lana... Ikastetxeek eskaintzen dituztenak ere laster jarriko ditugu.



KIROLA EUSKARAZ GIDA
www.getxo.net/gehitu/ webgunean

Getxo Getxo EUSKALDUNTERA EUSKALDUNTZA EUSKALDUNTZA EUSKALDUNTZA EUSKALDUNTZA



Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO ZUBIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Berangoko altzifrea



2010eko iraila, Berango

Testua: **Itxaso Paia**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Behinola Berangoko
Eroski ondoan
dagoen jauregiko
balkoidun leihoan
bizi zen markes gazte
bat daukat gogoan,
beti egoten zena
leihoari soan...
zuhaitz hari begira
zeren esperoan?

2

Nolabait ezagutu
zuen neska hura
sarritan gonbidatuz
sartzeko barrura;
ez zen noblea, baina
printzesen modura,
azal zuria eta
aingeru itxura...
Zuhaitzaren azpian
eman zuten uda.

3

Parking handi bat, etxe
gehiago zein tren
aitzakia ohi dira
botatzeko dena;
zuhaitz honi jarri nahi
dionak kondena
igual beharko luke
pentsatu aurrena
ez dela egur soil bat
botako duena.

* Doinua: Agur sagar beltzaran

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai
egiguzu atal honetan agertzea gura
zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko
duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

getxo > iparra galdu gabe, iparririk ez baitago etorkizunik

Urriaren 13an hasiko dira *Iparra galdu gabe* jardunaldiak, hamaika ekintzaz beterik

Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emateko ekintza anitz antolatu dute *Iparra galde gabe* egitasmoaren baitan. Duela hamar urtetik hona antolatzen dituzte jardunaldiok EKE Euskal Kultur Erakundeak eta Udalak, urte birrik behin, eta euskara eta euskal kultura da ekitaldien bihotza. EKEko zuzendari Pantxo Etchegoinen iritziz, muga psikologikoak “*beti hor daude*”, iparraldearen eta hegoaldearen artean. Baina elkarlana eta kultura trukaketa hauen bitartez erakutsi gura dute “*gure herria, ortzadarraren antzera, koloretsua, anitza eta euskalduna*” dela. Hainbat jarduera prestatu dute turismoa, dantza, musika, antzerkia, kirola, gastronomia, kontularitza zein literaturagaz lotuta. Horien artean daude Jon Cazenaveren *Herri ixilean* argazki erakusketa, urriaren 13tik aurrera, eta Ipar Euskal Herritik mendi ibilaldia, hilaren 17an. Azaroaren 7ra arte bestelako ekintzak ere garatuko dituzte, laster izango duzu horien barri. ○

bartzelona > EH Sona jaialdia eta gastronomia zikloa, Euskal Etxean

Informazio gehiago: www.euskaletxea.cat edo www.ehsona.com

Diaspora lan eta lan dabil ekimen kulturalakaz, Bartzelonara ku-ku bat egitea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Ekimen potolo bi antolatu dute urrirako eta azarorako bertako Euskal Etxean: Euskal Herria Sona jaialdia eta Euskal Gastronomia Zikloa. Musika lehiaketa antolatu dute lehenengoaren barruan, eta talde saridunak Bartzelonan jotzeko aukera izango du EH Sona barruan, azaroaren 20an. Euskaraz abestu eta EH Sona jaialdian inoiz parte hartu ez duten talde eta bakarleri orok parte har dezake. Urriaren 20ra arte aurkez daiteke eta azaroaren 2an iragarriko dute irabazlea. Bestalde, Euskal gastronomia Zikloa ere abiatu dute. Pintxo ikastaroak, hitzaldiak zein dastaketak egingo dituzte, eta kontzertuak barikuro. Kataluniatik ibiliko bazara, badaukazu plana. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...hamia

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

bertsolaritza > Bizkaiko Txapelketa abiatuko da urriaren 10ean

Beñat Vidal leioztarrak ere parte hartuko du Bizkaiko Txapelketan

Bertso-sukarraren garaia itzuli da Bizkaira; izan ere, Bertsolari Txapelketa abiatuko da urriaren 10ean. Aurten, gainera, txapelketa berezia izango da Uribe Kostarrontzat, eskualdeko bederatzi bertsolarik parte hartuko du eta. Jone Uriak irabazi zuen ekainean Uribe Kostako txapelketa, eta puntuen arabera sailkatu dira Beñat Vidal, Itxaso Paia, Aitzol de Castro, Arrate Illaro, Joanes Igeregi eta Peru Vidal. Bizkaiko Txapelketan 30 bertsolarik parte hartuko du hasierako kanporaketetan. Azken txapelketako irabazlea eta finalistak, barriz, aurrerago hasiko dira bertsoetan: Igor Elortza egungo txapeldunak zuzenean kantatuko du finalean, gainontzekoek finalerdietan. Horregatik sartuko dira finalerdietan Fredi eta Xabi Paia algortarrak tarteko. Kanporaketak azaroaren lehen asteburura arte luzatuko dira, eta jarraian hasiko dira finalurreak; hiru izango dira. Final handia abenduaren 18an izango da. ○

getxo > Kontsumo Taldea, elikagaiak zuzenean, bitartekaririk barik

Parte hartzeko EHNEgaz harremanetan jar zaitzke: 946232730 edo isa@ehne.org

Kontsumo taldea ez da barria Getxon, 11 hilabete daroa martxan “era ezberdinean elikatzea” helburu, baina irailean aurkeztu zuten jendaurrean. Ekoizleek eta kontsumitzaileek harreman zuzena daukate eta horrek hiru abantaila eskaintzen dizkie: bertako elikagai ekologikoak norbere esku izatea, salneurri duinak kontsumitzaile eta ekoizleentzat eta bientzako erabakitzeko aukera. Ekoizleak Areatza ingurukoak dira eta oso pozik daude taldeagaz, baita kontsumitzaileak ere. Orain arte 12 lagunek parte hartu du eta guztiek berretsi dute jarraitzeko konpromisoa. Gainera, aurkezpenean, beste zortzi pertsonak eman du izena, eta badaukate lagun gehiagorentzako tokia. Parte hartu gura izanez gero, EHNE sindikatuagaz harremanetan jar zaitzke. ○



“Hasieran, janarian nabaritu nuen alde handiena, ordutegiak ere oso ezberdinak ditugu”

Elisabeth Arrajojo > Sikap Filipinas elkarteko presidentea

Kargu bikoitza betetzen du Elisabeth Arrajojo Getxon. Alde batetik, Sikap Filipinetatik etorritako gizon-emakumeak biltzen dituen elkarteko presidentea da; bestetik, Getxoko Etorrinen Plataformako kargu gorena hartu zuen 2009an. Geldirik egon ezin den horietako dugu filipinarra: “Ez didate geldirik egoten uzten, ahal dudana egiten saiatzen naiz; denbora badut zergatik ez dut lagunduko?”. 1977tik bizi da gure artean; kulturen arteko distantzia nabarmena bada ere, zubiak ere aurkitu ditu Arrajojo: “Hasieran, janarian nabaritu nuen alde handiena; ordutegiak ere oso ezberdinak ditugu, berandu esnatu eta berandu oheratzen zarete zuek. Hala ere, espainiar kolonia izan denez, beste herrialde batzuetatik etorritakoak baino erraztasun handiagoa dugu gaztelera ikasteko”. Filipinetako komunitatea handia da Getxon: “Elkartean 150 lagun gaude, baina askoz gehiago dira Areatza eta Algortan bizi direnak”. Zer eginik ez zaie faltako Sikapeko kideei urrian; 15etik 17ra Sozialhitz Giza Eskubide eta Migrazioei buruzko III. Topaketan euren ikuspuntua plazaratuko dute. 21etik 30era barriz, Filipinei buruzko Jardunaldiak egingo dituzte Villamonte Kultur Etxean: “Denetarik egiten saiatuko gara: dantzak, argazki erakusketak, eskulanak etab.”. Etxetik mugitu barik bidaiatzeko aukera aparta! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

AreetanVilla de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Andra Mariren etorkizuna

Udalbatzak eta Andra Mari Gure Lurra elkarteak akordioa lortu zuten iraileko osoko bilkuran; horren arabera “egun dauden etxebizitzetarako lehentasuna” emango zaie

Denbora luzez ezer entzun barik egon ostean, irailaren 23ko Udal Bilkuran Andra Mariko lurretako Herri Antolamendurako Plan Orokorren gaia landu zen barriz ere. Udalbatza eta Andra Mari Gure Lurra elkarteak akordioa berretsi zuten; horren arabera, “Getxo inguruan egun dauden etxebizitzak mantentzeari emango zaio lehentasuna”.



Iberberangoko geltokia ez dago martxan oraindino

Manifestaldi jendetsuak, alderdien arteko eztabaidak, auzokideen aldarrikapenak eta bestelakoak ikusi eta entzun ditugu Getxoko Andra Mari lurretako Herri Antolamendurako Plan Orokorragaz lotuta. Hala ere, aspaldian ez dugu izan komunikabideetan horren inguruko albisterik. Irailaren 23ko udal bilkuran Andra Mariko lurrak berbagai izan ziren barriz ere.

Izan ere, Udalbatzan ordezkaturik dauden EAJ, PSE-EE eta Alternatiba alderdien aldeko botoakaz, Andra Mari Gure Lurra auzo elkarteak eta tokiko Gobernu Taldeak adostutako hitzarmena berretsi zuen Getxoko Udalbatzak. Hitzarmenaren arabera, Getxon “egun dauden etxebizitzetarako mantentzeari emango zaio lehentasuna” Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) diseinatzerako orduan. Alde bozkatu duten hiru alderdiak pozik agertu dira eta erabakia “Andra Mariko lurzorua urbanizagarria bizi diren herritarren lasaitzeko dagoen beharraz jabetuta” hartu dutela adierazi dute. Alderdi Popularra aldiz, abstenitu egin da, hitzarmenak ez duela Getxoko etxebizitzetarako etorkizuna bermatzen. Bestalde, Andra Mari Gure Lurra auzo elkartearen kideek, ontzat eman dute akordioa

«Hitzarmenaren arabera, HAPO diseinatzerako orduan, gaur egun dauden etxebizitzetarako lehentasuna emango zaio lehentasuna»

“jabeontzat, HAPOren berrazterketa hasi aurreko fase hauetan, akordiorik onena izan daitekeenetik hurbil dagoelako”.

Lau puntu ditu udal bilkuran adostutako akordioak. Lehenik eta behin, HAPO diseinatzerako orduan, gaur

egun dauden etxebizitzetarako mantentzea, lehenetsiko den irizpidea izatea. Bigarrenik, hitzarmenaren adostutakoa (gaur egungo etxebizitzetarako lehentasuna) Plan Nagusiaren idazketa-taldeari helaraztea; honez gain, idazketa-taldeari iradokiko zaio, Andra Mariko lurzorua urbanizagarria bildutako eraikuntzak daudela kontuan hartuz, hirigune barri moduan kalifikatzeko aukera kontuan har dezala, bai eta jada badiren hiriguneetan haien mugetatik oso gertu duten kokapenaren etxebizitzetarako barnean hartzea ere. Hirugarrenik, gaur egungo etxebizitzetarako barritze lanak egin ahal izateko lizentzien auzia landuko da. Azkenik, HAPOk ohiko bizitoki diren etxebizitzetarako okupatzaileak ateratzea eskatzen duten aparteko egoeretan, barriz etxean sartzeko eskubidea bermatuko da. ○

Alango aldatzen doa

133 etxe babestu eta 3 igogailu egingo dituzte



Gaur egun, hutsik dago Alangoko orubea

Urte bi joan dira Alango auzoko Hiltegi zaharra bota zutenetik, auzoaren aldekako prozesuari hasiera emanez. Irailean, datozen urte bietan egingo diren lanen barri eman zuten. Alde batetik, Arene, Euskal Herria eta Alango kaleak lotzeko, hiru igogailu egingo dituzte. Bestetik, alokatzeko etxebizitzetarako promozioa eraikiko dute Alangan, Getxoko lehena.

Aurreikusitakoa betez gero, 2011ko lehen hilabeteetan egingo dira martxan doako igogailuak. Arene kalean dagoen Metro azpiko lurpeko pasabidea eta Alango kalea lotuko dituzte, Euskal Herria eta Juan Bautista Uribarri kaleetatik pasatuz; guztira 28 metroko aldea gaindituko dute. Bakoitzak 16 lagunentzako lekua izango du; kristalezkoak izango dira, egitura moderno, argiztapen pro-

pio eta zaintza sistemagaz. 1.600.000 euroko aurrekontua dute lanek.

Igogailuak batera, alokatzeko 150 etxebizitzetarako babestu egingo dituzte; Getxoko lehenengo promozioa izango dena. 45 eta 75 metro koadroko 133 etxebizitzetarako eta 75 eta 115 metro koadroko 18 egongo dira. Bost urterako alokatu ahal izango dira; 15 urte igarotakoan, erosteko eskubidea egingo da. 150 etxebizitzetatik 29 gela batekoak izango dira; 104 gela bikoak eta 18 hiru edo lau gelakoak. Guztiek edukiko dute garajea eta trastelekua. Etxe horiek lortzeko baldintzak Eusko Jaurlaritzaren Arautegiaren arabera izango dira, erroldatzeari dagokiona izan ezik, eskatzaileak gutxienez hiru urtez jarraian edo azken 10 urteotan bost urtez Getxon erroldatua egon behar baitu. ○

KIROLA EUSKARAZ GIDA INTERNETEN ESKURA

Udalak entrenatzaile euskaldunak dituzten kirol taldeen gida argitaratu du Interneten; Gehitu kirolera, herriko kirol mundua euskalduntzeko ekimenaren barruan. Gida www.getxo.net/gehitu helbidean dago eskuragarri eta laster Getxo Kirolak erakundearen eta udalerriko beste klub ugariaren informazioa edukiko du. Harremanetarako datuak, entrenamenduen inguruko informazioa eta klubek euskararen alde egindako beharrendaren barri ere ematen dute.

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATUZ

Merkataritza eta Ostalaritza Enpleguarekin kanpaina martxan jarri du Udalak, sektore bi horiek dinamizatzeko. Guztira, 120.000 euro inbertituko ditu kanpainaren ardatz nagusi izango diren hiru zutabeak lantzeko: diru-laguntzak, prestakuntza langabetuentzat eta enpresentzat eta Enplegu Topagunea. Diru laguntzei dagokienez, 90.000 euro banatuko dituzte bertoko langabetuak kontratatzeko Gabonetako eta Merkealdietako kanpainetan. Laguntzak eskatzeko epea irailaren 15ean zabaldu zen eta azaroaren 19a arte egingo da zabalik. Bestalde, sektore bi horietako enpresek prestakuntza eskaintza zabaldu izango dute, Merkataritza Interneten edo Erakuslehio-apainketa ikastaroak, besteak beste. Azkenik, hilaren 22rako, Enplegu-Topagunea antolatu dute.

SUTEAK PREBENITZEKO SISTEMA, FASE PILOTUA

Bakarrik edo 65 urtetik gorakoak bizi diren 85 urtetik gorako herritarren artean suteak prebenitzeko sistema frogatzen ari da Udala. Fase pilotuan, 122 auzokideri eskainiko die sistema; aukeratutakoek eskutitza jasoko dute etxean. Esperientzia ondo ateratzen bada, gainontzekoei eskainiko die sistema, 846 lagun guztira. Zerbitzua doakoa da. SOS DEIAK zerbitzuaren arabera, etxeko 10 istriputik 8 suteak izaten dira, eta kaltetutakoaren erdia baino gehiago 60 urtetik gorakoak.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak

Bagastikoetxe Industrialea
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Cristina Ayuso > “Emakumeak Getxoko historian (XIV-XVII. mendeak)”

“Alde handia zegoen legeen eta egunerokoaren artean”



Cristina Ayuso historialaria

Getxoko historian emakumeek bete duten papera ezagutzeko Udalak eskainitako bekak animatuta “Lehenengo emakume getxotarrak: Emakumeak Getxoko historian (XIV-XVII. mendeak)” lana argitaratu barri du Cristina Ayusok. XIV. eta XVII. mendeen artean emakumeek esparru publiko zein pribatuan bete duten papera aztertu du historialari madrildarrak. Artxibategietan aurkitutako informazioa erabili du batez ere lana osatzeko. Udalak euskaraz eta gazteleraz dagoen liburuaren 500 ale banatuko ditu liburategietan eta herriko elkarten artean.

—Zerk bultzatu zintuen proiektua aurkeztera?

—Historia ikasketak amaitutakoan, EHUko Erdi Aroko Historia graduondokoa egin nuen. Beka argitaratu zutenean proiektua aurkeztea erabaki nuen, graduondokoa Erdi Aroko emakumeen inguruan behar egin baikenuen. Bibliografia eta gaia ezaguna zen niretzat.

—Zer da zehatz-mehatz landu duzuna?

—Ikerketa historikoa da, Getxoko XIV. eta XVII. mendeen arteko historian, emakumeek izan zuten garrantzia aztertu

dut. Esparru ezberdinak landu ditut: familia, beharra, eguneroko bizitza, marjinalitatea e.a.

—Nora jo duzu informazio bila?

—Bibliografia erabili dut batez ere; aurretik egin diren genero ikerketak eta artxi-boak kontsultatu ditut: Derioko Elizbarrutiko Artxibategia, Historiko Probinziala, Foru Aldundiko Artxibategi Historikoa e.a. Getxon artxibategi historikoa dago, baina bertan gordetzen den informazioa modernoagoa da eta ezin izan dut ezer erabili.

—Zeintzuk dira lanaren ondorioak?

—Lanaren haria mende horietan emakumeek jasan behar zuten arautegi, erreprezioaren eta eguneroko bizitzan betetzen zuten paper garrantzitsuen arteko aldea da. Arautegiak, oztopo asko jartzen zizkien eta asko mugatzen zuen jardura publikoan izan ahal zuten parte hartzea. Eguneroko bizitzan aldiz, oso presente zeuden.

—Adibide deigarriren bat?

—Alargunen adibidea deigarria da; garaiko eskema apurtzen du, mota guztietako kontratuak sinatzen baitzituzten. Manuela de Aztegi gizonezko erreferentzia ba-

«Kostaldeko herria izateak berezi egiten zuen emakumeen egoera»

rik agertzen da; bisigu salmentaren monopolioa zuen Lemoizen, Armintzako portuan. Arrantzaleen lan-kontratuak sinatzen zituen, arauak jarri.. garrantzi handiko emakumea izan zen. Kasu berezia da, garaiko legeek ez baitzuten onartzen emakumeek maila horretako erabaki ahalmenik izatea.

—Zertan da ezberdin Getxoko emakumeen egoera inguruko herrietakoak alderatuz?

—Kostaldeko herria izateak berezi egiten zuen emakumeen egoera; gizon asko itsasora joaten ziren, itsas armadan edo Ameriketarako itsasontzietan arrantzale. Horrek emakumeek presentzia eta erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa izatea ekarri zuen.

—Zelan sentitu zara azterketa egiten?

—Hasieran ikaratu nintzen; uste nuen ez nuela informaziorik aurkituko. Baina, uste dut lan txukuna gelditu dela. Orain, historia garaikideari hurbiltzeko gogoia dut, informazio gehiago baitago. ○

Oihala zabaltzen denean 11 talderen lanak ikusiko dira 15etik aurrera XXVIII. Antzerki Jardunaldietan



Glu Glu Producciones taldea

Bi asteburuetan zehar, urriaren 15etik 17ra eta 22tik 24ra, Euskal Herriko antzerki konpainien lanak ikusteko aukera izango dugu aurten XXVIII. edizioa beteko duten Getxoko Antzerki Jardunaldietan. Guztira 11 talde pasako dira egun horietarako prestatutako lau eszenatokietatik; 13 lan aurkeztuko dituzte, 7 euskaraz eta 6 gazteleraz.

Teatro Taldeak *Diva di palo* lanagaz emango dio hasiera jardunaldiei; 21:30ean, Romoko Santa Eugenia Plazan. Urriaren 16an, Deabru Beltzak taldearen Parrandan espektakulua ikusi ahal izango da Algortako Tellagorri Plazan

12:30ean. Arratsaldean, *Cocidito Madrileño 2* lana eskainiko du Glu Glu Producciones-ek. Domekan, goizez zein arratsaldez egongo dira emanaldiak Tellagorri Plazan, Areetako Musika Eskolan eta Villamonteko Kultur Etxean.

Antzerki Jardunaldien bigarren asteburuan, En la lona, Potxin eta Patxin, Hika Teatro, Patata Tropikala, Txalo eta Simulacro taldeen lanak ikusi ahal izango dira. Barikuan 21:30ean emanaldi bakarra izango da; zapatuan eta domekan aldiz, goizez zein arratsaldez izango dira emanaldiak. Sarrerak BBK-ko kutxazainetan eta Kultur Etxean eros daitezke. ○

BERBALAGUN KANPAINA MARTXAN JARRI DUTE

“Gura dugu” lelopean martxan jarri dute Egizu Getxo Euskaldunek lagunek 2010-2011 ikasturterako berbalagun kanpaina. Asteazken ordu betez batu eta mingaina euskaraz dantzan jarri gura duenak badauka nora jo. Paletan jokatu, kafea hartu, abestu, tabernaz taberna osteratxo egin, euskaltegiko etxerako lanak egin... aspertzeko astirik ez dago berbalagun taldeetan. Gainera, ikasturte honetarako bizikleta berbalagun talde barria sortzeko proposamena egin dute Egizukoek. Izena emateko epea urrian zehar egongo da zabalik, eta azaroko lehen astean lotuko dira taldeak. Martikoena kaleko 16. zenbakiko 2. pisuan (Algorta) egin behar da.

Informazio gehiago:
egizugetxo@gmail.com / 619 935 541

SEXOLOGIA INFORMAZIO ZERBITZUA ABIAN DA

Udalak urte hasieran martxan jarritako Sexologiari buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua martxan dago barriro, udako etenaldiaren ostean. Adin guztietako getxoarrei sexualitateaz gehiago gozatzen laguntzeko helburua du zerbitzuak eta Berdintasun Planaren barruko egitasmoa da. Kontsultak telefonoz, e-postaz edo aurrez aurre egin daitezke, banaka, bikotean edo taldean. Bulegoa Algortako Martikoena kaleko 16. solairuan dago zabalik martitzen 17:00etatik 20:00etara; garrantzitsua da hitzordua aldeztu aurretik eskatzea.

Harremanetarako: sexuinfo@getxo.net

GETXON ZUZENEAN, KONTZERTU SORTA

Getxoko tabernek kontzertu sorta eskainiko dute urritik aurrera, *Getxon zuzenean* ekimenaren barruan. Hilaren 7an, Proyecto Brundel Mosca taldeak joko du arrastiko 20:00etan Algortako Satistegi Tabernan. Astebete beranduago, hilaren 14an, Romora salto egingo du musikak; Dani Merino bakarlaria entzuteko aukera egongo da 20:00etan Trokazulo tabernan.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Celia Antruejo eta Izaskun Alonso > “La jirafa” egitasmo artistikoak

“Krisi garaiotan diru gutxigaz aldatzen dugu lokalen irudia, obra handirik barik”

Arte Ederrak ikasi zuten Celia Antruejo leioztarrak eta Izaskun Alonsok, eta “La jirafa” egitasmo artistikoak egiteko proiektuari ekin zioten ondoren. Pintoreak dira biak, baina diseinu grafikoa ere erabiltzen dute. Leioan dabilta lanean orain eta euren lana bertatik bertara ezagutu gura izan dugu.



www.lajirafaproyectos.com webgunean ikus daitezke euren diseinuak eta egitasmoak

—Leioara udan etorri zarete, baina zuena ez da egitasmo barria.

—Hamabi urte daroagu proiektu honeguz, ia-ia karrera amaitu genuenetik. Pintura espezialitatean lizentziatu ginen eta Izaskun irakasle dabil EHU.

—Baina pintura baino gauza gehiago egiten duzue?

—Ideia da artea demokratizatzea. Hau da, eremu publikora eta pribatuetara erotea, guztientzako prezio eskuragarrian. Ikasi dugun guztia dekorazioan, estalduratan eta antzekoetan aplikatu ahal izatea. Diseinu grafikoa ere aplikatzen dugu dakiguna, baina ohiko diseinugile batek egiten duenetik desberdin. Diseinatzaile grafiko bat aseptikoagoa da, hotzagoa; gure formakuntza artistikoagoa da nolabait, lanei horregatik ematen diegu kutsu desberdinagoa, artistikoagoa.

—Nola sortu zen egitasmoa?

—Kasualitatez ia. Administrazioetarako lanak egiten hasi ginen, kiroldegi bateko estaldurak, adibidez. Baina eraikin barrurako imagina digitalak eskatzen hasi zitzaizkigun, eta diseinu grafikoa sartzen hasi ginen apurka. Turismo liburuxkak zein eraikin dekorazioak egiten ditugu, denetik. Deustun hasi, Bilbon lan egin genuen ondoren, hainbat urtetan; uda honetan etorri gara Uribe Kostara.

—Baina norbanakoentzako ere lan egiten duzue, ezta?

—Erakundeak, elizak, haurreskolak, aurrezki-kutzak edota ostalaritza eta saltokientzako lan egin dugu, baita norbanakoentzako ere, etxeetan. Eremu oso zabala da. Aproposak gara itxuraldaketak egiteko, krisi garaiotan diru gutxigaz aldatzen dugu lokalen irudia, obra handirik barik. Basartena taberna eta Kala denda barritu ditugu, besteak beste. ○

Euskaraz jolastera!

Olgetan euskaraz haurrentzako programa itzuli da, **izena eman daiteke** dagoeneko



Txomin Aresti eskolan garatuko dute *Olgetan euskaraz*

Hondartzako eta igerilekuko jolasak albo batera utzi behar dira datorren urtera arte, baina lasai egon, konponbiderik badago eta. Esaterako, *Olgetan euskaraz* programa.

Ohi legez, hil honetan itzuliko da haurrentzako tailerrak eta jolasak antolatzen dituen Udal-programa, urriaren 13an hasiko dira ekintzak, hain zuzen ere. Euskara Zerbitzutik jakinarazi duteenez, “*jolasak eta tailerrak euskaraz joratzeko ekimena dugu*”.

Zehazki, 1999 eta 2005 urteen artean jaiotako haurrei zuzenduta dago *Olgetan euskaraz*; baina parte hartu ahal izateko, Leioan erroldatuta egon behar dute. Ikastaroak eta ekimenak 17:30ean

hasiko dira, eta 19:00etan amaitu. Talde bi egongo da, egunen arabera banatutakoak: bata, astelehenetan eta eguaztenetan, bestea martitzenetan eta eguenetan. Urtero legez, Txomin Aresti ikastetxean garatuko dituzte tailerrak eta jolasak.

Dagoeneko izena eman daiteke parte hartzeko. Horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko da izena emateko orria urriaren 6a baino lehen, 09:00etatik 14:00etara (Jose Ramon Aketxe 11, 4. solairua; telefonoa: 94 607 25 76). Bertan topatuko duzu orria, edota Udalak daukan webgunean: www.leioa.net. Matrikula egitean 58,41 euro ordaindu behar da. ○

KAJOI FLAMENKOA JOTZEN IKASI GURA?

Ikastaroa eskainiko du Ander Sanchezek Kajoi flamenkoa jotzen ikasteko, hil honetatik aurrera, eta Leioan. Andaluziako erritmoak ikasi gura dituenak badauka orain primerako aukera. Izena emateko irakasleagaz harremanetan jarri besterik ez daukazu, 665 71 21 34 telefonora hots eginez edota anandalander@yahoo.es helbide elektronikora mezua bidaliz. Ele!

ARGI PAISIAK, KULTUR LEIOAN

Oihana Goenaga gasteiztarraren *Argi Paisiak* ikusgai daude Kultur Leioan, urriaren 31 arte. Goenagaren egitasmoan nabarmentzen da portzelanaren propietate zeharrargitsua. Artistak zalantzan jarri du “argiak gudan daukan eragina. Bera protagonista gisa, dena eraiki eta denari bizia ematen diona; izan ere, izaki bizidun guztietan nahitaezkoa da argiaren eta iluntasunaren arteko zikloa, biak ala biak beharrezkoak baitira hasiera eta amaiera baterako”. Gainera, “unea esanguratsu egiteko, argiak isil-isilik ematen duen indarra antzematen da” erakusketan.

Urriaren 31ra arte Kultur Leioan, astelehenetik domekara

ATERPE GAZTEGUNA ZABALDU DUTE

Udalak zabaldu du azkenean Aterpe Leioa Gaztegunea, Aldapabarrena kaleko 2.ean, 14 eta 35 urte bitartekoentzat. Erabilera anitzekoa da eta 517 metro koadrotan dauzka: ikasteko gela, erabilera anitzeko gela, nagusientzako eta txikientzako egongelak, informatika gela, elkarteentzako batzar gela, bulegoak, sukalde eta jantokia duen txokoa, administrazio gunea, komunak eta artxiiboak. Ikastaroak antolatuta dituzte dagoeneko.

Informazioa gehiago: **Gaztegunea (Aldapabarrena, 2) edo www.leioa.net**

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net



Luberi Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua presatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtziozko ongaitze lanak eta enile lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongaitzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berreikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Gautxoriak Taldea Kultur Elkarteak > *Nafarroa euskal Estatua* erakusketa

“Euskaldunok Estatu bat izan genuela erakutsi gura dugu, ikuspuntu hori mahaigaineratu”

Gautxoriak Taldeak 30 urtetik gora daroa ekimen kulturalak antolatzen Erandion. Udazken honetarako Nafarroaren bilakaera historikoa birpasatuko dute, erakusketa eta hainbat hitzaldi medio.

—Hainbat ekimen antolatu duzue *Nafarroa euskal Estatua* egitasmoaren baitan, erakusketa bat tarteko.

—Nabarralde elkartearen erakusketa da eta Erandiora ekarri dugu. Urriaren 8ra arte egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara; goizez taldekako bisitaldiak egingo ditugu. Horregaz batera egingo dugu hitzaldi bi eta kantaldi bat. Lehen hitzaldian eskainiko dugu 1512-2012 bideoa, eta bigarrenean, Floren Aoz etorriko da independentziari buruz hitz egingo, urriaren 7an; 19:30ean hasiko da, Udaleko erakusketaretoan.

—Zergatik hau dena antolatu, eta Nafarroari buruz?

—2012an beteko dira 500 urte Nafarroako Erresuman Albako dukea sartu zela. Horren harira erakutsi gura dugu orain 500 urte Nafarroa Estatu zela, gaur egun den eremua baino zabalgooa gainera. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa ere Nafarroa izan zirela, eta euskaldunok, Estatu bat izan genuela;



Urriaren 8ra arte ikus daiteke erakusketa Udaleko erakusketaretoan, argibideak: 690 353 690

ikuspuntu hori erakutsi eta mahaigaineratu gura dugu. Erakusketa prest zegoen eta pentsatu genuen merezi zuela gai honi heltzea.

—Gautxoriak antolatu duzue.

—Asmoa geneukan udazkenean kultur ekitaldi bat antolatzeko, eta Nafarroa gaia egokitu da. Datorren urtean ere horrelako ekimena egin gura genuke, garai berean eta kulturagaz lotuta.

—Eta beste hainbat saltsatan ere murgilduta zabilzate, ezta?

—Bai, orain Dantzaldi Ibiltariagaz gabiltza, laster hasiko da, AIKO taldea etorriko da astean behin euskal dantzak erakustera, beste behin ere.

—Izan ere, urte asko daroazue lanean.

—Lehenengo urteera egin genuen 1978an, 30 urtetik gora igaro da, eta jende askok parte hartu du elkartearen. Urteeraz eta bestelako ekimenetaz aparte erraldoiak atera ohi dugu jaietan eta. Gautxorik bere presentzia izan du urtetan Erandion. ○

Asterix baino gehiago

Hasi da **V. Komiki Lehiaketa**, apirila arte aurkez ditzakete lanak 15 eta 35 urte artekoek



Kategoria bi daude, komikia eta komiki-banda

Has zaitezke arkatzak zorrotzen, Erandioko V. Komiki Lehiaketa hasi da eta. Gazte bulegoak antolatu du eta 15 eta 35 urte bitarteko lagunei zuzenduta dago. Apirilaren 15era arte aurkez daitezke lanak, Gazte Informazio Bulegoan bertan.

Kategoria bi daude, komikia eta komiki-banda, eta bakarka zein taldeka, bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake bakoitzean. Zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke, euskaraz edo gazteleraz. Komikiek 18x24 cm-ko lau orrialde izan behar dute, eta bandek, 19x8 cm; bineta bi edo gehiago eduki behar dute.

Teknika eta gaia librea da, baina ez dute onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazistadun lanik. Pertsonaia guztiek jatorrizkoak izan behar dute, eta argitarabakoak. Lan originala aurkeztu behar da.

Hiru sari emango dute maila bakoitzean, baina egile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du horietako bakoitzean. Lehenengo sariak 1.000 eurokoak izango dira. Saririk bakoen artean, euskarazko autorerik onenari zein Erandioko autorerik onenari 250na euro emango diete.

Gazte Informazio Bulegora helarazi behar dira lanak, zuzenean bertaratuz edota postaz, Irailaren 23a plazara. ○

BERBALAGUNAK, HASTEKO GERTU

Dagoeneko izena eman daiteke Berbalagun programan, urri osoan zehar egin daiteke. Berbalagunak euskaraz hitz egiteko biltzen dira, euskaldun barriek praktikatzeko aukera izan dezaten, hizkuntza ikasteko bidean. Berbots Erandion Euskaraz taldeko lagunak harremanetan jarri behar da apuntatzeko, 630 404 171 telefonora hots eginez.

KANTAGUNEA URRIAREN 8AN, GAUTXORIAKAZ

Nafarroa euskal Estatua ekimena daukate eskuartearen Gautxoriak elkarteok eta hainbat ekitaldi antolatu dute hilaren 8ra arte. Beñi Agirrek hitzaldia eskaini zuen irailaren 29an: *1512. Nafarroaren konkista*. Egun horretan inauguratu zuten Nabarralde elkarteak prestatutako erakusketa, Udaleko erakusketaretoan. Gainera, urriaren 7an *Independentzia: atzo, gaur eta bihar* hitzaldia eskainiko du Floren Aozek, aretoan bertan eta 19:30ean. Erakusketa hilaren 8ra arte mantenduko dute, barikua; izan ere, *Kantagunea* antolatu dute amaiera ekitaldi gisa. La Plaza tabernan elkartuko dira 19:30ean eta euskal kantak abestuko dituzte kalerik kale. Jarraian mokadu-jatea eta ekimenaren amaiera egingo dute Fermin Valencian kantariaren laguntzagaz, 21:00etan izango da, erakusketa-gelan.

TAILERRA KU-KU LIBURUXKA LANTZEKO

Seme-alabakaz euskaraz hitz egiten hasteko laguntza eskaintzen du Ku-ku liburuxkak: oinarrizko hiztegia, onomatopeiak, abestiak eta abar. Liburuxka erabiltzen ikasteko tailerrak antolatu ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak Jado Compasion eta Ignacio Aldekoa ikastetxeetan. Lehen tokian urriaren 18an izango da 17:00etan, eta bigarrenean, 20an eta 16:45ean.

Informazio gehiago: 94 489 01 28 edo euskara@erandioko-udala.net

Terrere 2
48990 ALGORITA
94 491 12 71
instielgorte@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendak) T: 490 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Ujribefm 107.8

Gariz irati

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

PIRINIOETARA URRIAN, MUNARRIKOLANDAGAZ

Aran bailarara urteera egingo dute Munarrikolanda Mendi Taldeko lagunek, urriaren 9tik 12ra. Asmoa daukate Bassiero eta Montarco mendiak igotzeko eta beste ibilaldi batzuk egiteko, baina leunagoak. Hartara, bailara hura ezagutzeko baliatuko dute urteera, hori dena eguraldiak lagunduz gero. Plana gustuko izanez gero, segi mendi taldearen lokalera (Trokabide 1, baxua), toki guztiak bete baino lehen.

EUSKAL DANTZAK HAURRENTZAT, ANIMATU!

Nagusientzako dantza ikastaroak antolatu ohi ditu Meñakoz Kultur Elkartek, baina iaz, herriko guraso talde batek Eguzkilo haurren taldea sortu zuen eta Meñakozen lokalean entseatzeko dute. Ikasturte barria hastear da eta haurrak parte hartzera animatu gura dituzte, batez ere mutil premian dabilta.

Izena emateko, arratsalde: 665 733 497 (Iratxe) edo 655 717 667 (Marisol)

SOPELBUS, NEGURAKO ORDUTEGI ALDAKETA

Sopelbusek ordutegia murriztu du, uda eta hondartza sasoiak bukatu baita. Ondorioz, Atxabiribil hondartzatik 07:30ean eta 08:30ean urtengo dira autobusak, eta orduro 15:00etatik 20:00etara. Haurreskolatik, ordea, 08:00etan eta 09:00etan abiatuko da goizez, eta orduro 15:30etik 20:30era.

GIDATZERAKO GARAIAN ERE, AURREZTEN IKASI

Modu ekonomikoan gidatzeko ikastaroa antolatu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak urriaren 30erako. Goizez izango da, gida-baimena duen herritar orori zuzenduta dago eta doan izango da; 18 lagunentzako tokia dago.

Izena emateko: 946 762 674 edo agenda21@uribekosta.org

Eguenetan musika *aLaia*

Hilean behin kontzertuak eskaini gura dituzte Laiak tabernan, egongo da giro



Bentatu kaleko bigarreanean dago Laiak taberna, udaletxearen atzean

Giroa sortu gura dute Herrian Laiak tabernakoei, "agenda kulturala egon dadila". Horregatik hasi dira kontzertuak antolatzen, "jendea kalera urten eta zerbait hartzera animatzeko aitzakia izan dadin", tabernako jabeek azaldu dutenez. Izan ere, "herrian ez dago ekimen kultural askorik".

Iraila akabuan ekin zieten kontzertuei, Peter Abelsek jo zuen, holandarra da baina Sopelan bizi da. Egitasmoagaz jarraitzea espero dute Laiak-ekoei, "dena ondo joanez gero eta auzokoei begi onez ikusiz gero; ikusiko dugu nola

doan...". Hilean behin egin gura dituzte kontzertuak, eguetan. Musika akustikoa, leuna eta atsegina eskainiko dute.

Aspaldi zerabilten ideia buruan eta zenbaitetan antolatu dute horrelakorik tabernan. Maiatzean egin zuten kontzertua, baina auzokideak kexatu ziren. Jaieran, barriz, "oso pozik lotu zen jendea, baita gu ere".

Gustuko dute mugimendua Laiak-ekoei, eta musikaz gain, bestelako ekimenik ere burutzen dute. Esaterako, tabernako paretak beti daukate prest gura duten artisten lanak erakusteko. ○

Joseba Rios > arkeologoa, "Sopelako lehen biztanleak" hitzaldia "Uribe Kostan aberastasun geologikoa eta kulturala dago, eta babestu behar da"



Urriaren 14an izango da hitzaldia Kurtzio Kultur Etxean, 19:00etan

Ondarearen Europar Jardunaldien barruan hitzaldia eskainiko du Joseba Rios arkeologoa. Sopelako lehen biztanleen aztarnak izango ditu hizpide urriaren 14an, Kurtzio Kultur Etxean.

—Zer kontatuko duzu urriaren 14an?
—Hasteko azalduko dut indusketen historia, Joxe Miel Barandiaran hasi zen ikertzen 50eko hamarkadan. Bertan aurkitu aztarnak kontatu diguten historia birpasatuko dut, historiaurrea batez ere, garai hari buruz baitugu datu gehien.
—Sopelan non egin dira ikerketak?
—Hainbat aztarnategi dago. Kurtzion duela 100.000 urteko aztarnak daude, Erdi Paleolitikokoak. Mendieta eremuan topatu dituzte aztarnarik zaharrenak, duela 300.000 urtekoak. Kurtzio muinoaren azpian suharrien aztarnategia dago, amildegian, historiaurrean hara zihoan jendea, suharria hartzera. Aztarnak jositako dago zonalde guztia. Ondoko herrietan ere badaude beste aztarnategi-

ak. Hori dena azalduko dut hitzaldian, aroz aro. Argazkien bitartez erakutsiko dut egindako lana. Era berean, saiatuko naiz berreraikitzen gunearen historia, suharrien garrantziatik abiatuta; izan ere, Diman eta Lemoan ere aurkitu dute Kurtzioko suharria. Klimaren eta paisaiaren azken 300.000 urteetako aldaketak ere azalduko ditut. Ordukoak dira inguruko lehen biztanleak, arrastoaren arabera. Oso aberatsa da aztarnategietan, arriskuan dago, ordea.

«Mendietan topatu dituzte aztarnarik zaharrenak, duela 300.000 urtekoak»

—Zergatik?
—Urbanizazioengatik. Zenbait urbanizazio eraikitzean aztarnategi batzuk galdu dira. Uribe Kostan aberastasun natural, geologikoa eta kultural handia dago eta babestu behar da; ikertu behar da eta jendea azaldu hor dagoena, zaintzeko eta kontserbatzeko. ○



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribertea 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banakuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Ander eta Endika Basaguren eta Amaia Hormaetxea > XXI. mendeko euskaldunak

“Euskal nortasuna mantendu dugu, XXI. mendean euskaldunak gara, hori erakutsi dugu argazkietan”

Berangoztarrak dira Ander (AN) eta Endika (E) Basaguren, eta beste gauzen artean, biak dira argazkilariak. Amaia Hormaetxea (AM), barriz, deustuarra da. XXI. mendeko euskaldunak erakusketa prestatzen dabiltza hirurak eta Londresen izango dira abenduan.

—XXI. mendeko euskaldunak egitasmoagaz zabilzate, zertan datza?

—(E) Hainbat erakusketak eta hitzaldik osatzen dute eta munduko hainbat Euskal Etxetan egingo dugu. Gure kultura eta ohiturak berraztertzen ditugu argazki sorta batean, baina gaur egungo ikuspuntutik. Teknologia barriak sartu dira gure bizitzan eta aldatu da jendartea. — (AM) Baina era berean, euskal nortasuna mantendu dugu. XXI. mendean euskaldunak gara, gure nortasuna trinko dugu, hori erakutsiko dugu argazkietan. Pentsatuak dira, ez bat-batekoak.

—Bigarren itzulia ere izango du, ezta?

—(E) Egitasmoaren bigarren fasean erakutsiko dugu nola mantendu dituzten ohiturak diasporako euskaldunek; bidaetan egingo ditugu argazkiak, ondoren hemen erakusteko.

—Eta nola bururatu zitzaizuen horrelako egitasmo bat garatzea?



www.vascossiglo21.com gunean izango duzue egitasmoaren barri

—(AN) Itsaspeko argazkilaria naiz, baina lurrean ere egiten hasi nintzen. Endika anaiak eta biok, erakusketa bat egitea pentsatu genuen eta gaiak bilatzeari ekin genion. Horrela sortu zen egitasmoa. Ondoren sartu zen Amaia, proiektua handitu ahala.

—Noiz estreinatuko duzue?

—(E) Erakusketa abendu osoan zehar egongo da Londresko Oxford Galleryn. Boiseko (AEB) Euskal Etxeak ere interesa

dauka, eta bestelako Euskal Etxe batzuek ere harremanetan gaude. Baina dirua behar dugu. Berangoko Udala laguntzen ari zaigu, baina gehiago beharko dugu, bai bidaietarako, bai argazkietarako, handiak izango dira eta.

—(AM) Egia esan, orain arte Euskal Etxeek babestu gaituzte gehien, hutsetik lagundu digute. Oso pozgarria da, euren gantsean pentsatuta egiten gabiltza proiektua eta eurei gustatzen ari zaie gehien. ○

Ricardo Villar > Olgeta soloak, aisi osasuntsu eta naturala

“Soloa emateaz gain, aisi osasuntsu eta naturala sustatu gura dut”



Ricardo Villar, Lemoizko lurretan

Lur zatia baino gehiago eskaini gura du Ricardo Villar getxoztarrak Olgeta soloak (*Huertas ludicas*) egitasmoagaz. Autokontsumorako, ekoizpenerako lur eremua alokairuan emateaz gain, harremanak egiteko gunea eta aisi lasaia eta osasuntsua gozatzeko aukera luzatu gura du. Lemoizko lurak aukeratu ditu egitasmoa martxan jartzeko eta dagoeneko 100dik gora dira izena eman dutenak.

—Nola sortu zenuen proiektua?

—Udal edo erakunde publikoek horrelako ekimenak egin dituzte aurretik, baina soilik langabetu edo jubilatuentzat. Edonori eman gura nion soloa izateko aukera; gainera, aisiagaz lotutako ekimena da, lagunartean edo familiakokaz gune natural lasaian eguna pasatzeko aukera ematen baitut. Ni neu solo bila ibili nintzen denbora luzez eta oso zaila egin zitzaidan lur emankorra eta

prezio onean aurkitzea; hortik ideia.

—Zer da eskaintzen duzuna?

—70 eta 120 metro koadro bitarteko partzelak alokatzeko aukera ematen dut, 0,70 euro metroa hileko. Prezioaren barruan, erremintak gordetzeko etxola, ureztatzea, ongarriak eta guztiontzako guneak daude.

«70 eta 120 metro koadro bitarteko partzelak aloka daitezke»

—Nekazaritza ekologikoa sustatzeko asmorik duzu?

—Kontratuak zehazten du debekatuta dagoela substantzia toxikoak erabiltzea. Ekologikoa baino, betiko laborantza sistema sustatu gura dut.

—Zelako harrera izan du proiektuak?

—Hilabete batean 100 lagunek deitu dute, ia guztia bete da. Pozik nago. ○

www.huertasludicas.es

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 687 952 977 • regarizar@euskalnet.net
Bete kokoa 1r ALGORTA

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 781 128

OSABIDE HORTZ KLINIKAZ
Arantza Etxebarria

- Odontologia oskorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bideberr 27, beheko eraikina
ALGORTA
94 430 76 96



Taberna Berri

Sarikobasoa 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 95



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BIXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRÉN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86



BISITA ANTZEZTUAK PLENTZIAN DOMEKETAN

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, bisita antzeztuak egingo dituzte Plentzian zehar urriko domeketan. "Marinelak, itsasoarekin lotutako bizitza" izena izango dute bisitek, eta iraganeko mendeetan gure lurraldean bizi izan ziren emakumeen historia kontatuko dute. Plentziako Turismo Bulegotik abiatuko dira 12:00etan; izena emateko 94 677 41 99 telefonora deitu behar da.

PANPA BELARRA ETA KONPOSTA, HITZALDIK

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak hitzaldi bi antolatu ditu Sopelako Kurtzio Kultur Etxean. Hilaren 15ean, 11:00etan, landare inbaditzailea den Panpako bedarrari buruzko berbalditxoa eskainiko dute; panpa errotik ateratzen ikasteko erakustaldi praktikoa ere egingo dute. Bestalde, urriaren 16an, 20:00etan, konpostari buruzko ponentzia eskainiko dute; bertaratzen denak, galderak eta proposamenak egiteko aukera izango du.

ERA EKONOMIKOAN GIDATZEKO IKASTAROA

Mankomunitateak era ekonomikoan gidatzen ikasteko saioa antolatu du urriaren 30erako. Gida baimena duen Uribe Kostako herritar orori zuzenduta dago ikastaroa eta doan da. Izena emateko Mankomunitateko bulegora (Gatzarriñe 2,4. Sopela) hurbildu edo ekogune@uribekosta.org helbidera idatz daiteke.

URIBE KOSTA

Nire berbalaguna izateko gogorik bai?



Astean ordubetez biltzeaz gain, urteerak eta bestelako ekintzak egingo dituzte

Ez dago aitzakiarik mingaina euskaraz dantzan ez jartzeko; Uribe Kostako berbalagun egitasmoa martxan dugu daborduko. Mankomunitateak biltzen dituen herrietan (Lemoiz, Barrika, Plentzia, Gorliz, Sopelana, Urduliz, Berango), euskaraz berba egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak elkartzeko asmoa du egitasmoak, euskaldun zaharrak eta barriak nahastea.

Izena ematen dutenak, lauko taldetan banatuko dira astean ordubetez batzeko; taldekideek eurek erabakiko dute non, zer

eta zertarako bilduko diren. Horrez gain, hileroko berbalagun guztiak bilduko dituzten ekintzak antolatuko dira: urteerak, afariak e.a. Taldeen jarraipena egiteko, zein arazoak konpontzeko arduradun baten laguntza izango da. Izena emateko epea zabalik dago eta telefono edo mail bidez egin daiteke. Urriaren 18tik aurrera egitasmoaren aurkezpenak egingo dituzte herriz herri. ○

Informazio gehiago: 605 773 541 / berbalagunuribekosta@hotmail.com

Urr. 4 - Urr. 18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

▶ **Isabel Almarazen margoak.** Algortako erakustaretoan, urriaren 16ra arte.
▶ **Herri ixilean, argazkiak.** *Iparra galdu gabe* jardunaldiak. Algortako Torrene erakustaretoan, hilaren 13tik aurrera.

LEIOA

▶ **Argi Paisaiak, Oihana Goenaga.** Kultur Leioan. Urriaren 31ra arte. Doan.

PLENTZIA

▶ **Okeanos, Rafa Aspiunzaren argazkiak.** Gofñi Portalen, urriaren 25a arte.

ZINEMA

LEIOA

▶ **In the loop (Perseo zineforum, Erresuna Batua zikloa).** Kultur Leioan. Hilaren 5ean, 20:00etan. 2 euro.
▶ **Buscando a Eric (Perseo zineforum, Erresuna Batua zikloa).** Kultur Leioan. Hilaren 19an, 20:00etan. 2 euro.

URDULIZ

▶ **Marmaduke.** Kultur Etxean. Urriaren 9an, 18:00etan.
▶ **Toy Story 3.** Kultur Etxean. Urriaren 16an, 18:00etan.
▶ **Origen.** Kultur Etxean. Urriaren 16an, 20:15ean.

MUSIKA

GETXO

▶ **Proyecto Brundel Mosca.** Algortako Satistegi kafean. Urriaren 7an, eguena, 20:00etan. Doan.



Anis Hawari palestinar errefuxiatuak hitz egingo du

▶ Hitzaldia

Palestina bertatik bertara, urriaren 7an

Palestinari buruz arituko dira urriaren 7an Kurtzio Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Bakea eta Duintasunak, eta Biladi Palestinar Kultura Elkarteak antolatu dute hitzaldia, palestinar herriaren egoera sopoloztarrei gerturatzeko. Anis Hawari 1948ko errefuxiatu palestinarrek hitz egingo du. Bakea eta Duintasunak garapenerako lankidetzak, elkartzasuna eta giza eskubideen esparruan lan egiten du. Biladi Palestinar Kultura Elkartearen helburua da herri palestinarra eta euskaldunen arteko harreman kulturalak sustatzea.

• **Non:** Sopelako Kurtzio Kultur Etxean • **Noiz:** Urriak 7, 19:00etan

▶ **Dani Merino.** Romoko Trokazulo tabernan. Urriaren 14an, 20:00etan. Doan.

ERANDIO

▶ **Kantagunea Fermin Valentziagaz.** La Plaza tabernatik abiatuta. Urriaren 8an, 19:30ean.

LEIOA

▶ **Omar Faruk Tekbilek.** Kultur Leioako Auditoriumen. Urriaren 8an, 21:00etan. 25 euro.

▶ **Udal Musika Eskolaren XXX. urteurrena.** Kultur Leioan. Hilaren 16an eta 17an, 19:30ean. 3 euro.

ANTZERKIA

GETXO

▶ **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Urriaren 8an, barikua, 19:00etan. Doan.

▶ Parrandan (Deabru Beltzak).

Algortako Tellagorri plazan. Hilaren 16an, 12:30ean. Doan.

▶ **Ipuin lapurra.** Algortako Tellagorri plazan. Hilaren 17an, 12:30ean. Doan.

▶ **Tira! Aurrera, Corre.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Hilaren 17an, 13:00etan eta 18:00etan. 4euro.

BESTEAK

LEMOIZ

▶ **Udal-ikastaroen hasiera.** Urriaren 4an.

ERANDIO

▶ **Hitzaldia: Independentzia: atzo, gaur eta bihar. Hizlaria: Floren Aoz.** Udaleko erakusketa-gelan, urriaren 7an, 19:30ean.

SOPELANA

▶ **Pirinioetara txangoa, Munarrikolanda Mendi Taldeagaz.** Urriaren 9tik 12ra.

▶ **Hitzaldia: Sopelako lehen biztanleak.** Kurtzio Kultur Etxean. Urriaren 14an, 19:00etan.

GORLIZ

▶ **Panpako bedarra landare inbaditzaileari buruzko solasaldia.** Udaletxean elkartzeko dira urriaren 15ean, 11:00etan.

PLENTZIA

▶ **Nafarroa Oinez jaialdira urteera, Atarrabiara.** Urriaren 17an, goizeko 08:00etan.

GETXO

▶ **Filipinei buruzko jardunaldiak: erakusketa, hitzaldia, zineforuma eta tailerrak.** Algortako Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.

▶ **Atxuriako itzulia, mendi ibilaldia.** *Iparra galdu gabe* jardunaldiak. Urriaren 17an. Izen-emotea 14ra arte, Villamonteko Kultur Etxean. 3 euro.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Maribiren pasabidea

Alde batetik bestera gurutzatzeko pazientzia eskatzen digun Getxoko pasabide amaiezina Maribirena da; hori esan digute behintzat, orriotan ikusi dezakezuen argazkiak ateratzen geundela, aurkitu genituen behar-ginak. Maidagan kaleko tabako-denda gobernatzen du Maribik. Pasabidea, metroaren lurperatze lanak irauten duten bitartean jarri dute; betiko lez, batzuen gustuko, besteen disgustuko!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Plentzian

dantzan

XX. mende hasierako argazkia daukagu, Bilboko Euskal Museoak utzitakoa. Jai egunen batean egindakoa da, kaleak lorez hornituta. Txistularien erritmoari jarraituz soka-dantzan dabilta herritarrak; gaur egun ere askotan dantzatzen dute pieza hori. Ikus daiteke zeinen dotore jantzita dauden, bai dantzariak, bai herritarrak; baserritar jantzia daukate batzuek, kalekoa besteek. Ehun urte eta gero, jaietako ohiturak eta usadioak bere horretan mantendu dira Euskal Herrian, dokumentu hau da froga argia; benetan ikusgarria.

[berbetan]

Jaiotzez nafarra da Laura Mintegi (Lizarra, 1955), txiki-txikitatik etorri zen Bilbora bizitzera eta dagoeneko badira 37 urte algortatu zela. Historian lizentziaduna eta Psikologian doktorea da eta Euskal PEN Klubaren presidentea bersorreratik, orain dela sei urte. Idazle ibilbidea *Ilusioaren ordaina* (Erein, 1983,) narrazio liburuagaz hasi bazuen ere, saiakera eta biografia ere landu dituen arren, nobela da gehien jorratu duen literatur arloa, horren lekuko: *Bai... baina ez* (Susa, 1986), *Legez kanpo* (Elkar, 1991), *Nerea eta biok* (Txalaparta, 1994), *Sisifo maite minez* (Txalaparta, 2001) eta argitaratutako azken lana *Ecce homo* (Txalaparta, 2006). Oraintsu abiarazitako *Adierazi EH!* ekimenaren aurpegietako bat ere izan da.

Laura Mintegi

Berbaren babesean, aske!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Agian jendeari ezezagun zaio PEN Klubaren jarduna; zein da zuen egitekoa? —Nazioartean sortu zen 1921ean Londresen, I. Mundu Gerra amaitu eta 3 urtera; idazleak eta kultur munduko jendea, asaldatuta zeudelako gerrako basakeriarekin. Pentsatu zuten elkarguneak sortu behar zirela hitzaren inguruan; dena posible dela hitzaren bidez, hitzak ideologia askea izan behar duela, erlijio, sexu eta guztia gaitetik. Ordutik 150 inguru PEN Klub sortu dira munduan, 25.000 idazle-kazetari baino gehiago dira mundu osoan penkide. Helburu nagusia da elkarguneak bilatzea eta hitza izatea ardatz, erreferente; eta bi jardura garrantzitsuenak dira adierazpen askatasuna defendatzea erlijio eta ideologia guztien gaitetik; eta gero, idazleak eta kazetariak babestea beraien lan profesionalagatik erasotuak, kartzelaratuak edo auziperatuak direnean. Lau batzorde dauzka, baina batzorde bategatik da ezaguna International PEN mundu osoan, “Writers in Prison Committee” (Idazle Kartzelaratuaren aldeko batzordea). Bigarren aktiboena da “Translation and Linguistic

Rights Committee”, Itzulpengintza eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea. Azken honek ere lan handia egiten du hizkuntza minorizatuen alde. Euskal PENek bi hauek hartzen du parte. Zoritxarrez sarri askotan bat datoz hizkuntza gutxituetan aritzen diren idazle edo kazetariak izatea erasotuak izaten direnak. Kurduekin ikusi dugu eta euskaldunekin ere bai. Euren hizkuntzetan idatzitako egunkariak itxi egin dira eta kazetariak kartzelaratuak edo mehatxatuak izan dira. Beti ez da horrela,

“Oso zaila da azaldu behar izatea Espainia demokrazia bat dela, baina ez euskaldunontzat; ez dute sinesten”

baina bada nolabaiteko lotura; hizkuntza gutxituak izaten dira presio politikoa jasaten dutelako, eta presioa jasaten dute ez soilik hizkuntzek, hiztunek ere bai. —Euskal PEN Klubetik zeintzuk izan dira urteotan aurre egin behar izan diezuen egoerak? Egunkariarena, Luzarragarena... —Alde batetik, oso indartsu eraman dugu Egunkariaren kasua; Tokioko kongresuan

azken ebazpenaren berri emango dugu, eta oso pozik, errugabe atera baitira Egunkariako kazetariak eta buruzagiak. Baina, aldi berean esango dugu ez dela neurri bakar batekin neurtu, salaketa bera izanda, badi-tugulako orain 3 urte, abenduan beteko dira, Egineko kazetariak eta buruzagiak kartzelan: Xabier Salutregi eta Teresa Toda, eta bereziki aipatu nahi ditut Jose Luis Elkoro eta Jesus Mari Zalakain, biak 60 urtetik gorako adinarekin, Elkorok 70etik gora, kartzelan; zergatik eta egunkari bate-

ko zuzendaritzakoak izategatik. Zaila da munduan hori adieraztea, ez da ulertzen; txinatarrak, mexikarrak, Afrikako hainbat herritakoak euren egoera azaltzera doazenean jendeak sinetsi, ulertzen du, baina ez da ulertzen euskaldunok azaltzen dugunetan zer gertatzen den Europan, Europar Batasunean, demokrazia formal batean, parlamentarismoa duena, gainera de



mokrazia esportatzen duena... Hego Amerikakoek esaten digute “guk ere nahi genuke zuek duzuen besteko demokrazia maila!”. Eta oso zaila da esatea egia dela Espainia demokrazia bat dela, baina euskaldunontzat ez! Hemen ez duela funtzionatzen. Lana dugu hori sinestarazten; batez ere ikusten gaituztelako besteak bezalakoak, europarrak, taldekidetzat hartzen gaituzte. Badugu oin bat Europa demokratikoan eta bestea demokraziarik gabeko herrialde batean; hori ez dute erraz ulertzen. Hala, gure lana da: batetik, hemengo errealitatea eramatea, eta bestetik, parte hartzea, besteak bezala, idazleen eta kazetarien defentsan, edonon dela ere.. Bereziki asko inplikatu gara kurduen egoeran, lan handia egin dugu besteekin batera; eta esan daiteke, heriotza zigorra zeukaten bi kazetarik eta idazlek lortu dutela bizirik ateratzea, zigorra konmutatu ditelako... Nazioarteko PEN-en lana izan da; eta guk ere ekarpen txoa egin dugu, kazetari kurduen senideak hemengo Parlamentuetan egon ziren, Gasteizen eta Iruñean... Bestalde, hemen ere PEN zer den ezagutarazten ibili gara. Benetan lan oso interesgarria egiten du, munduan idazle askok adierazi dute esker ona, PENi esker lortu dutelako epaiketa justua izatea, autoritateen aurrean babestuta sentitzea... Hainbat tropelia ez dira egin PENi esker. Beste asko bai ordea: ez genuen lortu Ken Saro-Wiwa idazle nigeriarra ez urkatzea; babestutako kazetari asko ere hil dituzte, Anna Politkovskaya, Hrant Dink e.a.

Berdin da ideologia, ezkerrekoa zein eskumakoa, mundu osoan hitza gatibu dago, arriskugarria da; ideia libreak hesipean sartu nahi dira, pentsamendu librea oso arrisku-tsua delako boterearentzat. Berdin da zein botere mota den, botereari aurre egitea, hitzez bada ere, arriskugarria da. Eta idazle-kazetariak hitza darabilgu, hori da gure lanabesa; pentsamendu askea badugu deseroso izan gaitzke. Asel Luzarragaren kasua nabarmena da...

—**Ebazpena gazi-gozoa da. Orain zer?**

—Hori da. Hasteko, Tokion kasua salatu-

ko dugu: errudun jo dute errugabe izanda. Oso larria da; azken finean, bere delitu bakarra ideia batzuk adieraztea izan da: ideia anarkistak; eta maputxeen alde egitea, beren lurra berreskuratzeko borrokan ari direla. Borroka oso larria da, hurbiletik ezagutzeko aukera eduki dugu, Aseli esker eta benetan basatia da errepresioa! Hemen eta edonon segituko dugu errebindikatzen

“Mundu osoan hitza gatibu dago; ideia libreak hesipean sartu nahi dira... oso arriskutsuak direlako boterearentzat”

hitza askea dela, botereari gustatu ala ez. Normalean gobernu guztiek egiten duten salaketa da terrorismoarekin lotuta egotea. Batzuetan egiteko modua oso zatarra da, bolbora sartuz norberaren etxean, Aselen kasuan esaterako; beste batzuetan, esanez kazetari horiek terroristen ideia bera defendatzen dutela, Eginen kasuan bezala. Egineko epaiketan, harrigarria bada ere, kontrako proba bat izan zen eguraldiaren mapa; esan zuten ETArekin bat zetozela lurraldearen ikuspuntu bera zeukatelako. Oso ondo dakigu hori PENen; badakigu norbait atxilotzen, epaitzen edo hiltzen dutenean gobernuak, edo paramilitarrek, esaten dutela gauza bera: terroristak direla. Horretaz asko eztabaidatzen dugu PENen, eztabaida oso interesgarriak!

Kostatu zitzaigun definitzea zer den terroris-

“Egin-ena, Egunkaria-rena, Asel Luzarraga idazlearena eta bestelako kasuak salatu ditu Euskal PENek”

ta izatea, gobernuak berehala egozten diotelako terrorista labela deseroso den orori. Azkenean erabaki genuen ez hitz egitea terrorismoaz baizik eta “terrore ekintzez”. Eta horrela gauza argitzen da. Idazle edo kazetari batek “terrore ekintzak” burutzen baditu PENek ezin dio babesik eman, baina horrelakorik frogatzen ez den bitartean, ez

dugu sinetsiko gobernuak emandako “terrorista” kalifikazioa, edozein ideia defendatzen badu ere, eta hor sartzen dira txinatarak, mexikarrak, kurduak, kubatarak edo euskaldunak. Noski, gero norberak hurbilago ditu batzuk besteak baino, baina lan egiteko orduan denak defendatzen ditugu, baita Holocaustoak ukatzeagatik Austrian atxilotu dituzten kazetariak ere. Gezurra

bada ere, gezurra esateko eskubidea dute. Gureari dagokiola, salatu behar izan dugu adierazpen askatasunari egindako hainbat eraso eta PENek babesari eman die; Soziedad Alkoholikari euren letragatik, errege espainiarren satira egiten zuten biñetageleci, e.a. —**Babes hori nahikoa ez denean...**

—Inpotentzia handia. Desilusiorik inoiz ere ez. Porrot batek ez du esan nahi merezi izan ez duenik. Guretzat oso mingarria da Eginen kasua. Eginen kontra erabilitako dokumentu berak erabili ziren Egunkariaren kontra; batzuk kalean daude, besteak ez; zer egin dute? Gauza bera. Laster 3 urte beteko dute barruan, beste 6-7 aurretik, edo gehiago! Baina ez asmatzeak ez du esan nahi txar to egiten dugunik, egin behar ez denik; nahiko erregaitzak gara alde horretatik. Mugitzen garenean beti topatzen dugu elkartasu-

hitza egin dezaketena. Dena den, interesgarria iruditzen zait esatea zein garrantzi handia daukan: mugimendu horizontala da, ez bertikala; malgua, zabalik dagoena, ez itxia; mugimenduan dago, ez geldia; ez dago argi nora helduko den, baina argi dago nondik abiatzen den. Urtzi Urrutikoetxeak bere poema liburuan zioen “borroka galduetatik gatoz”, bada gu bagatoz porrot batzuetatik.

“Nahiago hurbilera baina guztiok batera, urrunera gutxi batzuk baino; lasterketa ez da amaitzen pelotoia heldu arte”

Aurrekoetan zerbait ikasi badugu izan da bakea garrantzitsuegia dela bakar batzuen eskuetan uzteko; kale egiten badute, guztiok gara kaltetuak. Igual ez dagokit hau esatea, baina interesgarria iruditzen zaizkit ETaren azken bi komunikatuak. Ez dio Espainiako Gobernuari idatzi; lehena euskal herritarrei eta bigarrena nazioarteko babesari idatzi die. Pentsatzekoa da. Ikusi duelako askok aspaldidanik ikusten duguna, bakarrik mahai batean ezin direla gauzak konpondu; konponduko badira mugimendu masibo batekin izango da edo ez dira konponduko. Mahaian konpontzen dena, mahaian apur daiteke; baina, partaidetza zabaleko konponketak oinarri sendoak ditu. Eta *Adierazi EH!*

interesgarria iruditzen zait horretarako aukera ematen duelako, eta alderdietako baseek aspalditik pentsatu dutena egiten ari delako. Alderdi buruek (aparatuak zentzu peioratiboan) gehiegitan egin dute kale; gainera, desenkontru artifizialak sortzen dituzte. Atentatua dagoen bakoitzean pena konpartitua da kalean, ez dago ia alderik zein alderditakoa den jendea, denok sentitzen

dugu tristura. Eta konpartitua da poza su-etena denean; bakan batzuk tristatzen dira. Susmagarria da nor tristatzen den eta zergatik, bakea garesti ateratzen zaie! Gehienontzat bakea da helburua; baseetan adostasun handia dago

—**Manifestazioa bertan behera uztea erabaki zenuten; parte hartzera zihazoan askorentzat hori amore emotea lakoa izan zen.** —Uste dut sentimendu kontrajarriak izan genituela guztiok; gorputzak zer eskatzen zizun eta buruak zer esaten zuen. Gorputzak eskatzen zizun adieraztea, gure eskubidea zelako, puntu! Askok jakinda bertan behera gelditu zela, joan ziren, kalean egon ziren... Baina, hain zuzen ere, aurreko prozesuetatik

zerbait ikasi badugu izan da tempus bat behar dela denetarako. Jakin behar da errespetatzen; presa ez da kontseilari ona, esaldi zaharra, amama-aititei entzuten diegu, baina egia da. Oraingo prozesuan gauza positiborik ikusten badut hori da ez dela egiten ari hauteskunde batzuei begira. Badakit batzuek presa dutela udaberriari begira zerbait gauzatzeko, gorpuzteko, udal hauteskundeetan egon ahal izateko. Baina, igual ez da tempusa, igual bai, baina igual ez. Jakin behar da hori errespetatzen.

Ez nintzen egon bertan behera uzteko erabakia hartu zuen taldean; baina beti pentsatu dut, eta saiatzen naiz hala egiten arlo profesionalen ere, nahiago dudala hurbilago joatea baina guztiok batera, eta ez urrunera heldu gutxi batzuk eta lorpena ez konpartitu baino. Zergatik? Urrunera heltzen garenean, lehenago edo beranduago, atzera begiratu behar izango dugu ikusteko ea non demontre gelditu diren besteak. Lehen semafororaino denok heltzen bagara, saiatuko gara bigarrenean heldu denok, gero hirugarrenean... Egia da individualitateak une batean garrantzitsuak direla, ezinbestekoak. Horiek tiratu behar dute eta norabidea markatu, baina lasterketa ez da amaitzen denak helmugara heldu arte, baita pelotoia ere. Prozesu honetan, uste dut, puntu horretan gaudela. ○

Hurrengo nobelaren musika itxaroten

—**Zure ibilbide literarioan narrazioak idazten hasi zinen, baina gehienbat jorratu duzun arloa nobelarena da. Desira, amets, amodio, desamodio, konpromiso politikoa dira zure lana zeharkatzen duten gai nagusietakoak. Azkeneko lana orain lau urte plazaratu zenuen; eta zelan doa hurrengoa?**

—Badut proiektu bat, aspaldidanik, nobela bat. Baina, bizitzak batzuetan aurrea hartzen dio norberaren proiektuari eta pixka bat albo batera utzi behar izan dut. Zorte handia dut, ez dut presarik. Batzuetan, egia da, editoreak material falta dabilzala eta ate joka etortzen dira... baina kasurik bere ez! As-

tasun hori daukat; ez da bakarrik askatasuna, hautu bat da. Hautu bat egin dut. Badaude literaturan profesional moduan jardun nahi dutenak, literaturgile profesionalak... Nik uste dut nahastu egiten direla profesionaltasuna eta diru-iturria izatea. Diru-iturria beste alde batetik aterata ere, banaiz profesionala, nire lana seriotasunez egiten dudalako; baina, presio ekonomikorik gabe. Ez dut atera behar liburu bat urtero bizi ahal izateko, nahiago dut diru-iturria beste alde batetik ateratzea, eta nire tempusa gordeztea. Gainera, konturatu naiz, batetik bestera, minimo bost urte behar ditudala; eta hori arazo larriak sortzen ez bada tarte horretan.

Kasu honetan geldi egon naiz pare bat urtean, baina egin egingo dut. Badaukat buruan nobela, badaukat titulua, badaukat sentsazioa... Batzuetan eskapatu egiten zait musika, eta nobelaren musika eskapatzen bazait, ezin! Nobela bakoitzak bere doinua dauka. Eta azkeneko bi urteetan zarata gehiegi eduki dut inguruan (zarata metaforkoa, noski), eta horrek ez dit utzi entzuten nobelaren musika. Baina hor dago, idatzita ere badaude hainbat folio, seguruenean, berriro horretara jartzen naizenean, bota beharko ditudanak... Baina, musikaren zain nago; oraindik zarata ez da amatatu, oraindik denbora pixka bat behar dut.



MENTALGASSI

GP 2010, Aisiari gorazarre

Irailaren 2tik urriaren 3a arte GETXOPHOTO argazki jaialdia izan dugu Getxon. Kale erakusketa erraldoiak, ametsakaz jolasteko tailerrak, bisita gidatuak, tragoak alaitzeko edalontzi-azpikoak... hori eta askoz gehiago erabili dute Begihandiko lagunek *Aisiari gorazarre* egiteko. Izan ere, hori izan da Jaialdiko hirugarren ediziorako aukeratutako gaia: aisia. Euren gorputzei begira bizi diren kulturistak, txakur txikiz eta bitxi handiz inguratzeko beharra duten aberatsak, zientzia fikzioagaz amesten duten lurtarrak... aisia bizitzeko hamaika modu dago. Eta zuk, zer egiten duzu ezer egiten ez duzunean?

Argazkiak: **Hodei Torres**



BISITALDI GIDATUA ARGAZKILARI GONBIDATUEKIN




GREG MILLER GALERIA HIGIKORREAN



MARTIN PARREN LUXURY LANA



MARTIN SCHOELLEREN LANA



NAOMI HARRISEN ERAKUSKETAKO SARRIFERA



MENTALGASSI BEIRA JASOTZEKO ONTZIETAN



MARTIN SCHOELLEREN LANA



SAIOA OLMOREN EKINTZA



NADAV KANDER PORTU ZAHARREAN



ARGAZKI(N)IAK



PETER DENCHEN ERAKUSKETA EDALONTZI AZPIKOETAN



ALGORTAKO AZOKAN



EDUARDO ARRILLAGAREN SOKAMUTURRA



BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Udagoieneko Kimuak

Aurten bederatzi filmek osatzen duten **katalogoak** ekin dio bideari



Asier Altunaren *Artalde* film laburraren irudia. Informazi gehiago: www.kimuak.com

Urtero legez, udagoienagaz batera eroriko dira zine zirkuitu, lehiaketa eta jaialdietara zein zinematarraino Kimuak ekimenaren 2010eko hosto aukeratuak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskadiko Filmategiak antolatzen duten programak XIII. ekitaldia beteko du aurten eta adierazi dutenez: “*Kimuak programa ospetsua izanagatik ere, jaialdi, telebista, banatzaile eta erosle asko zain eduki dituen arren, oraindik erroka askori egin behar dio aurre. Lehen, Euskadin eta kanpoan duen presentziari eustea, eta presentzia hori handitzea...*”.

Kimuak 2010 katalogoa osatzen duten lanak aukeratu dituen epaimahaiak (Jose Luis Cienfuegos, Joxean Fernandez, Victoria Fernandez Andrino, Lucia Olaziregi eta Edurne Ormazabalak osatutakoak) iragan uztailan jakinarazi zuen erabakia; alde batetik, ohi legez 8 film izan beharrean, aurkeztutako lanen kalitate ona dela eta aurtengoan 9 film labor aukeratu dituela; eta bestetik, horiek zeintzuk izango diren, ondorengo-

ak: *Amar* (Isabel Herguera), *Daisy Cutter-La cortadora de margaritas* (Enrique Garcia, Ruben Salazar), *Exhibition 19* (Alaitz Areneza, Maria Ibarretxe), *La gran carrera* (Kote Camacho), *Khorosko* (Miguel Angel Jimenez), *El Premio* (Leon Siminiani), *Un novio de mierda* (Borja Cobeaga), *Artalde* (Asier Altuna) eta *Ondar ahoak* (Angel Aldarondo). Azken

«Kimuak osatzen duten lanen artean lehenengoz 3D teknikaz egindako lan bat»

biak dira euskarazko bakarrak, oster, Altunarenak izena baino ez du euskaraz berba bako lana da-eta. Bederatzi filmotako hiru animaziokoak dira; horien artean 3D teknika erabiliz eginiko *Daisy Cutter...* pelikula dago, teknika horregaz egindako Kimuak katalogoaren historia osatzen lehenengoa. Bestalde, irudi errealez egindako lan experimental bat dago, ohiko fikziozko lan bakarra eta hutsune nabarmena film dokumentalena da. ○

“Bilbo Hiria” lehiaketa abian

Emanaldiak **eguen eta barikuetan** izango dira azaroaren amaiera bitartean



Mobydick abeslari algortarra. Bilbo Hiria Lehiaketako informazio gehiago: www.bilbao.net

Hasi da dagoeneko Bilbo Hiria XXII. Pop-Rock Lehiaketa. Antolatzaileek esan dutenez, aurtengoan talde gutxiago aurkeztu dira, “litekenez ipinitako adin bitarteari edota sistema informatikoak sortutako oztopoengatik”, guztira 818; horietatik 562k pop-rock sailean emon dute izena, 197k metalean eta 59k beste joerak alorrean. Horren albotik, euskal taldeen izen emoteak gora egin du, 221 guztira; gaitontzekoen artean, besteak beste katalanak (114 talde), madrildarrak (99), andaluziarrak (73), belgikarrak (26), danimarkarrak, frantziarrak eta italiarrak izan dira.

Horetatik guztietatik “adituen epaimahaiak” 38 aukeratu ditu Bilborockeko oholtza gainean lehia daitezten. Guztira 16 emanaldi (sarrera doan) izango dira azaro bitartean, eguenean edo barikuetan (urriak 1, 7, 8, 14, 21, 22, 28, eta 29; azaroak 4, 5, 11, 12 eta 19). Amaitzeko, Beste joerak ataleko finala azaroaren 19an izango da, metalekoa azaroaren 26an eta pop-rockkoa azaroaren 27an.

Dakigunaren arabera, Uribe Kostak ordezkari bakarra dauka aurtengo Bilbo Hirian, Mobydick bakarlarri algortarra (urriaren 21ean emongo du kontzertua). ○

diskoa > Laboari gorazarrez

Abenduan argitaratuko duen *Txinaurriak*. Mikel Laboari *Ikasitako Kantuak* diskoa prestatzen dabil bIDEHUTS diskoetxea. Jakinarazi dutenez, “*LP bikoitza (CDa ere barruan daroana) eta CD bikoitzean kaleratuko dugu lan hau. Honek esfortzu ekonomiko handia suposatuko digu...*”. Horrenbestez, diskoaren aurre-salmenta egitea erabaki dute (webgunetik erosteko aukera eskaini zuten, alegia), “*bidenabar diskoa finantzatzeko behar dugun diruarekin lagunduko baitiguzu. Zure sostengua behar dugu*”. Lana talde zein kantari ezagunek Mikel Laboari egindako gorazarrea da eta parte hartu dutenen artean daude: Berri Txarrak, Ruper Ordorika, Anari, Atom Rhumba, Audience, Lisabö, Inoren Ero Ni, Gora Japon, Ama Say, Amodio, X. Montoia, Hotel, Willis Drummond, Zura, Borrokan, Gabon Caligula eta Dilistak

Informazio gehiago: www.bidehuts.net

Olimpic > kantzak opari

2005eko udan sortutako Olympic talde getxoztarrak 2006 amaieran kaleratu zuten lehenengo EPa. *Proyecto Demo '07* (Maraworld, Radio3) lehiaketa irabazi gerostik sari andana lortu dituzte getxoztarrak, hamaika oholtzatan jotzeko aukera zabalduz. 2008an *Dirty Towels* lana argitaratu zuten, nahasketa bilduma batez batera osatu zutena. Oraintsu disko eta bilduma horretako hainbat kanta webgunetik doan jaisteko aukera emoten dute.

Informazio gehiago: www.myspace.com/olimpicsound

diskoak

Don inorrez
Bide Ertzean
Gaztelupeko Hotsak



Abesti barriek osatutako diskoak atera barik lau urte igaro ondoren, azkenean bertan da *Don inorrez* lana, Bide Ertzean taldearen zortzigarrena. Bere musikaren ezaugarri nagusiak gordetzen dituzte kantu barriek ere: egituren soiltasuna, moldaketa dotorez janzteko kezka, melodiaren garrantzia eta hitzak zaintzeko ardura.

ERA
Zea Mays
Bonberenea



Urriaren 14an kaleratuko du Zea Maysen azken diskoa, *ERA*. Dagoeneko hiru abesti entzun daitezke myspace.com/zeamaysrock gunean: “Negua joan da ta”, “Osoa” eta “Kukutza III”. Bonberenean argitaratu du seigarren diskoa. Taldea 1997an sortu zuten lau bilbotarrek: Aiora Renteria, Iñaki Imaz, Ruben Gonzalez eta Asier Basabek.

Eta tira eta tunba
Joseba Tapia
Zakurraren Bileria



Gerra karlistetako 22 bertso sorta musikatu ditu Joseba Tapiak *Eta tira eta tunba* diskoan. Karlistek eta liberalek idatzitako bertsoak dira, hain zuzen. Antonio Zabala zenak Auspoa bilduman jasotako bi liburuxketakoak dira ia denak, eta hasi da diskoa jendaurrean aurkeztzen, haize instrumentuez osaturiko talde barri batez.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA ORZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebia 1 Tf. 94 480 27 41

Algorta

[liburuak]

Karmele Igartua akorduan

Poema-bilduma bi plazan, eta **hirugarrena ere prest** utzi zuen aretxabaletarrak

Hatsa elkarteak Senperen urtero antolatzen duen egun-pasa literarioak aurten Karmele Igartua (Aretxabaleta, 1959-2010) olerkariari gorazarre egin zion. Halaber, ez da Bergarako Idazle Eskolaren ekimenez Igartuari egingo zaion omenaldi bakarra, izan ere azaroaren 13rako *Karmele gogoan* ekitaldia prestatzen dabilta. “Min bizi-bizi batek” eraginda, gaixotasun luzearen ondorioz zendu zen poeta eta irakasle aretxabaletarra abuztuaren 20an.

Herriko Kurtzebarri Eskolan irakasle jardun zuen, eta 2000tik hona 3 antzerki lan taularatu zituen ikasleakaz eta irakasleakaz batera. *Mugalari*, *Administrazioa Euskaraz*, *L.Luma berrien eleak* agerkarie-

«Bergarako Idazle Eskolak Karmele gogoan ekitaldia antolatuko du udazkenean»

tan kaleratu ditu bere idazlanak, eta 2005ean Bergarako Idazle Eskolan izena emon ostean, zabaldu zen bere jario literarioa: poema liburu bi plazaratu zituen *Hitzak orbainetan* (Felipe Arrese Betia saria lortu ostean, 2008) eta *Denbora enaren hegaletan* (Pamiela, 2009). Zendu aurretik, hirugarrena ere prest utzi zuen, *Itsaso kontra bat*. Bera akorduan, hona liburuan agertuko den “Esentzia” poema:

liburuak



Atsekabe zaitut
Irati Jimenez
Txalaparta

Iratz Inziarte irudigilearen laguntzagaz osatu du Jimenezek *Atsekabe zaitut* nobela grafikoa. Sorgin modernoak Bilboko kaleetara ekarri ditu idazleak, irakurlea fantasiaz zipiritindutako mundu batean sarraraziz. Beldur diegun aldaketei buruz egingo du berba.



Joxe Migel basoko oreina
Magali Le hucho
Alberdania

Aizeztiagan herritar guztien lotarako panpinak desagertu dira. Joxe Migel basoko oreina eta istorio honetako protagonista, Kuntfarr gaiztoen arrastoaren atzetik abiatu da panpinak berreskuratzeko asmoz. Horretarako irakurlearen laguntza beharko du.



Bere olerki, errezitaldi batzuk: www.idazten.com

Azken poema hau ez da azken poema. Igual, idatzi ezineko poema hura da, beti hurrengorako uzten den poema huraxe. (...)
(...)
Idatzi ezin diren poema guztien esentzia baita, gaurko poema, edo nire esentzia. Eta eternal egiten nau poema honek
Igual bukaera nirekin batera izateko izanik, esateke utzita nigan bakarrik bizi eta bizitako delako, beti. ○

[kirola]

Javi Polo > Urdaibaiko arraunlaria

“Itzela izan da! Ametsak beteta! Baina bat lortzean, beste bat erdietsi gura ohi dugu...”



Javi Polo

Portu Zaharreko Javi Polok (1979) bederatzit urtetatik daroa arraunean, azken laurak Urdaibai taldean. Aurten bete ditu arraunlari legez ametsik goxoenak.

—Aurtengoa biribila! Liga, Kontxa, zeuk hainbeste itxarondako Getxoko ikurriña...

—Sentsazio zirraragarri asko batera! Etxean irabaztearena, Getxoko ikurriña lortu ez izanaren arantza nuen; Kontxakoaren atzetik ere bageneraman urte mordo... Heldu dira, biak! Getxoarrei eta neure ingurukoei eskaini gura diet. Ametsak beteta; baina, bat lortzean beste bat erdietsi gura duzu! Ea lortzen dugun inork ez garraztea; aurten legez!
—Zeure herrian, zelan hartu zaituzte?

—Lehen txanpa amaitzerako hasi zen jendea urduritzen, autobusak antolatu behar zirela... Kontxan algortar piloa ikusi nuen! Askok aspaldi ikusi bakoak... Emoten du zalerik ez dugula, eta holakoetan konturatu gara badirela! Benetan hunkigarria!

—Kontxako ziboga historikoa izan ei da. —Itsas-estropada xehetasun txikiengatik irabaz ala gal daiteke. Oso ondo sartu ginen zibogara; Asier Arego eta Zulaika lako artista bi dauzkagu, edozein unetan egundokoa antolatzeke gai direnak! Gero taldea ziztu bizian atera zen, lehenengoan hartu genuen haizea aldeko eta... Har gaitzabela!

—Aurkakorik ere entzun da, Korta kasu. —Kontxan 19 minututik jaitea gai izan den bakarrak, itsas handi apur bat egonda, holan berba egitea, hori da hori marka! Ez dauka batere graziarik! Gogaitu nau, min emon dit; bizi osoa daroadalako lanean, eta azkenean momentua apur bat izorratu dit. —Eta datorren denboraldiarako erronkak? —Ipin dezakegun helburu bakarra da: aurten irabazitakoa lortzea eta ondo ibili ez garen denboraldi hasierakoak ere lortzea; talde barria izan garenez, gero ordaindu dugu.

«Bizi osoa daroat lanean, eta azkenean momentua apur bat izorratu dit!»

—Zelan dakusazu arrauna, zalegoa gurean? —Nahiko geld! Jendea arraunean apur bat gehiago sartzea sustatu beharko zen. Mutiko nintzenela beti joaten nintzen aita-amagaz estropadetara; jende piloa biltzen zen! Orain ez doa inor! Mutiko batek jarrai dezan garrantzitsuena jendearen bultzada da. Neuk ere izan ditut sasoi txarrak, jarraitza bultzatu nauena jendea izan da, baita neure ilusioa ere. Hemen, denboraldi onak egin dira, falta dena da herriak hori sinestea, eta arraunlariek ere bai, noski! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GAZTEAK
- 24 OREKUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURU ZERBITZUAN
- BITEBIA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Soraia Chacon > Harresiak Apurtuz elkarte

“Esperientziak partekatuko ditugu *Sozial Hitz* topaketan, eta elkarlana bultzatu”

Sozial Hitz, Giza Eskubideei eta Migrazioei Buruzko III. Topaketa burutuko dute urriaren 15etik 17ra Getxon, Fadura kiroldegian. Harresiak Apurtuz etorkinen laguntzarako elkarteak antolatatu du, Udaleko migrazio arloagaz elkarlanean.

—*Sozial Hitz* kongresua egingo duzue urrian, zeri buruz?

—Harresiak Apurtuz elkarteak antolatzen duen foroa da. Esperientziak eta lanak partekatzen ditugu, immigrazio eta atzerriartasunari buruz hausnartzeko. Hirugarren kongresua izango da eta aurreten berezia izango da, Migrazioei Buruzko Munduko IV. Gizarte Foroagaz ia batera egingo baitugu; Ekuadorren izango da eta foro horretako edukiak landuko ditugu *Sozial Hitz* topaketan.

—Zeintzuk dira eduki horiek?

—Lan-ildo bi izango dira, Giza Eskubideak eta migrazioari buruzkoa bata eta aniztasuna, elkarbizitza eta gizarte eta kultur eraldaketei buruzkoa bestea. Lehenengoa oso interesgarria izango da, gaurko egoera politikoari buruz hausnartzeko dugu. Izan ere, Estatuak ezarritako migrazio politikak giza duintasunaren aurka doaz, etorkin, errefuxiatu, aberrigabe eta bere senideen eskubideen gainean hierarkia bat ezartzen dute. Ondorioz, kendu egiten diete aktore sozial eta politiko ezaugarria, politikoki parte hartzeko espazioa ukatuz. Mugei buruz arituko gara, estatuen arteko eremu guztiak segurtasun neurritz josten dabilta Europar, jendearen mugimenduak trabatuz. Migrazio politikak kokatzen dituzte etorkinaren pertsona pasibo gisa, laguntzaz hartzaile huts gisa. Gure ustez etorkin



Izena emateko: www.harresiak.org

subjektu aktiboak dira, eskubideakaz eta betebeharrakaz.

—Eta bigarren ildoan zeri buruz jardungo duzue?

—Aniztasuna, elkarbizitza eta gizarte zein kultur eraldaketei buruz. Mundu globalizatu honetan, kultur aniztasuna eta identitateen eraikuntzarekiko erronkarik handiena planteatzen dute nazioar-

horregatik egin gura dugu gogoeta kultur arteko elkarbizitza ereduak ulertzeko moduz, indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta bazterketa era guztiak desagerrarazteko.

—Zein helburu daukazu?

—Batez ere esperientziak partekatzea elkartearen eta gaian interesa daukaten lagun guztien artean. Euskal Herriko

“Kultur arteko elkarbizitza ereduak ulertzeko moduz egin gura dugu gogoeta, bazterketa era guztiak desagerrarazteko”

teko migrazioek. Zergatik? Jendarte eta kultura aldaketak lotuta daudelako nazio, jendarte, pertenezia eta mugen kontzeptuak, hau da, hiritartasunagaz. Horregatik, migrazioek aukera ematen dute kultura ulertzeko. Baina testuinguru horretan, migrazioak gatazka eta bazterketa era ugariaren xede bilakatzen dira;

hainbat tokitatik etorriko dira parte hartzera, baita beste toki batzuetatik ere. Elkarlana ere bultzatu gura dugu.

—Urriaren 15etik 17ra izango da topaketa, zer egin behar da parte hartzeko?

—Gure webgunean topa daiteke egitaraua eta izena emateko modua, www.harresiak.org da. ○

Fredi Paia

Fagoetako San Bernabe

Badira sekula existidu ez diran hamabi egun, 1582ko urriaren 4tik 15era, hain zuzen bere. Gregorio Aita Santuak agindu eban urriaren lauaren ostean hamabosta etorriko zala, urte hatan, horretara egutegiaren eta eguzkiaren artean egoan desfasagaz amaitu guran. Izan bere,ordura arte erabilitako Julio Caesarren eguzki egutegiak txarto neurtzen eban eguzkiaren bira. Eta bagilaren 23an amaitu beharreko egunaren luzapena, bagilaren 11n izaten zan, ia 1600 urtean emondako akats txikerren pilaketaren ondorioz. San Bernabe egunez, hamabi egun lehenago, ospatzen zan eguzki gana edo solstizioa, egungo San Juanetako erritua.

Santa Luzitan gaua da luze, San Bernabetan egune... dino koplak zaharrak. Eta 1582a baino lehenagoko solstizioak zein egunetan ospatuten ziran azaltzen deusku. Misterio bat da zelan eragin eutsan egutegiaren zuzenketak eguzkiaren udako jaiari, eta ondorioz, ordurako kristautasunaren eraginez San Bernaberen izena hartu eban leku sakratuei. Erandion badago jazoera horreen guztien protagonista izandako ermita.

Euskaldunek *faueta* esaten deusie Fagoeta auzoari, baina orain arteko izen ofiziala Fano izan da. Koldo Mitxelena hizkuntzalariak *Fano, que es el nombre de un barrio en Erandio* idatzi ostean honakoa aurkeztu eban toponimoaren jatorri modura: *Fanum (lat.) templo, lugar sagrado*. Pagoa, *fagoa* bere latinezko *fagus* berbatik ei dator. Kontutan hartu daigun zugatx izen hori, Euskal Herriko luze zabalean, Gorkizen esaterako, leku sakratuak lotuta dagoala. Izan bere, normala da lehenago izpiritualtasunari begira horren garrantzitsua ei zan leku batek antzinako izen erdalduna izatea. Erlinjino za-



San Bernabe

harretan izen sakratuak tabuak izan ohi dira eta. Kristautasunak izen zahar horiek ahaztu daiguzan egin dauan behar gogorra gehitu behar deutsegu, ganera. Non dagoz

«Non dagoz egun santuen bidez izendatzen doguzan leku guztien izen zaharrak?»

egun santuen bidez izendatzen doguzan leku guztien izen zaharrak?

Erandioko ermitetan zaharrena eta garrantzitsuena da San Bernabe. Anastasio Manzanok *Pasajes históricos de Erandio* liburu edarrean dinoan legez, 1436. urtean, oraindino, inguruko herrietako tenplu nagusia zan. Inguruko herrietako biztanleek bertan egiten ezean errituak, eta oraindino badagoz ortusantu zaharra non egon zan gomutan daukienak. Egunez, osteraz, ezin igarri leikio orduko itxurarik. Horren zergaitia 1833. urtean hasi zan Foruei eus-

teko lehen gerra izan zan. Urte hatan Bilbo inguruko mendietan gotorlekuak eregi ezezan. Halanda ze, Fagoeta ganean altxatu eban fortea egiteko apurtu eban San Bernabe ermita zaharra. Kondairak dino Lutxanako borrokaren aurretik Fagoeta ganeko fortea hartu eban soldadu espainiarrak Logroñoakoak zirala. Horreek San Bernaberen imagina ostu eban eta euren herrira eroan. Ordukoak ei dira Logroñon santu horren izenean egiten diran jaiak, bertako jai nagusiak.

San Bernabeko landan sorginak bartzan ei ziran iretargi zuriko gabetan, nahi barikuetan. Ez da kasualitatea parean eukitea Fatimako Andra Mariari eregitako eleiza barria. Sasoi bateko erandioztarrek Anbotoko Señora ulea orraztuten ikusten eban gan berean. Eta ondoan, korridoretik ikusten diran Enekuriko *batx*-urdinetan, orain etxe eraikuntzaren zaborreriek estalitako leize handia egoan. Erandioko adindunei entzun legez: *itxoso iri(g)i zan leku*. Baina hori beste istorio bat da. ○

[badaukazu non aukeratu]

Asko dira gure herrietan dauden tabernak eta jatetxeak. Gida honen bitartez hauen aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu aniztasuna alde batera utzi barik. Animatu, badaukazu non aukeratu eta.

 <p>Portu Zaharra bar Portu Zaharra kalea 38 48951 Algorta-Gernu (Bilbao) Tf. 94 463 20 33 portuzaharra@portuzaharra.com www.portuzaharra.com</p>	 <p>SOLAETXE Jatetxea Egunko menua Asteburu menua Karta Oñako erretoria Barrieta sarea 358 - 48940 Leioa (Bilbao) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 53 www.etsolaetxe.com</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini geugaz harremanetan: 94 491 13 37 publiuk@aldizkaria.biz</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>

[gaurko aukera]

Berezi hanburgeseria

Ogitartekoak baino askoz gehiago



Berezi jatetxeko lagunak

Apirilean zabaldu zituen ateak Berangoko Sabino Arana kale nagusiko Berezi hanburgeseriak. Julene Unanue eta Zior-tza Ortuondo berangoztarrak animatu ziren denbora luzean itxita egon den lokalari bizia ematera: "Plentziako Zuri-beltz tabernan beharrean egon nintzen; behar barik geratu eta gure negozioa martxan jartzea erabaki genuen". Gautxorien habia izandako lokal ilunari, argia eman diote Unanuek eta Ortuondok; barruan zein kanpoan, giro lasaian jateko aukera dago eta koadrila handiak hartzeko adina leku daukate.

Espezialitatea duten hanburgesak eta ogitartekoez gain, entsaladak, plater konbinatuak, txitxi-burruntziak, anoak eta arin baina ganoraz jateko beste hainbat aukera dituzte: "Denetarik eskaintzen

saiatzen gara". Etxeko txikienek, eurentzat egindako "Kangre-burger" hanburgesak dasta ditzakete: "Telebistako marrazki bizidunetako Bob Esponja pertsonaiagatik jarri genion izena; ohikoak baino txikiagoak dira". Zeliakoentzako ogitartekoak ere prestatzen dituzte.

Bazkariak zein afariak, bertan jateko zein etxera eroateko eta astelehenetik domekara; horrelako aukera gutxi dago Berangon eta ingurukoek gogoz hartu dute Berezioko eskaintza: "Pozik gaude lehenengo hileotan izandako harremeragaz; jendea hurbildu egin da eta gustura ikusi ditugu". Familian zein lagun koadrilan, baduzu nora jo: "Metrotik hurbil dagoenez leku eroso da".

Sabino Arana 34, BERANGO
Tf. 94 668 10 64



ARTAZA ETXEA
JATETXEA
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa
antebarnetan bazkari eta afariak entzuz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkian, Gubela erailaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



GOZOLABEK
GALDARETXE
• Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
• Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....

Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171. posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Auziluzo s.p. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prensa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lintaneriak

Ordufa Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zure publizitatearen berri
Zure publizitatearen berri
Zure publizitatearen berri

Tf. 94 491 13 37

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Non dago Artika? Une txarrak igaro dira. Orain bide barri bati ekingo diozu eta beti alboan izango dituzu lagunak, asko maite baitzaituzte. Hainbeste, agian exea okupatu eta literak sartuko dizkizutela.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Udan udara delako eta ia egunero daudelako festak herri batean edo bestean, baina dagoeneko igaro da jaietako sasoa. Beraz, ez edan hainbeste, urdailak eskertuko dizu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure burugogorkeria alde batera uzten baduzu, haserretu zinen lagunagaz dena konpondu ahal izango duzu. Baina ohartu behar duzu dena ez dela beltz edo zuri, eta beraz, emaitza aukera bat.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Bihotza pozik, baina gurasoak ez. Nohizbehinka etxean denbora apur bat igaro beharko zenuke, eta ez beti lagunagaz kalean ibili. Extea ez da hotela!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Segi horrela, ondo ari zara eta. Utzi arduratzeari, ez izan beldurrik; ahal duzun guztia egiten jarraituz gero, azkenean gauzak ondo aterako zaizkizu, ikusiko duzu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Beti zabilta dirua xahutzen, tontakeriatan gainera. Hori ez da oso zentzuduna garaioan. Aurrezten ikasi beharko zenuke, larrialdietarako dirua izan gura baduzu behintzat.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Eztula, mukiak sudurretik behera, eta halere, kalean zabilta egun guztian, baina zu ez zara superheroi. Zaindu behingoz, osasunak eskertuko dizu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Mutil edo neska horren atzean ibiltzeari utzi eta konturatuko zara maitasuna zuk uste baino hurbilago dagoela. Jende asko daukazu inguruan, hasi dibertitzen!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ikusten duzu? Saiatu zara, lan egin duzu eta asko ikasi duzu, horrek ekarri dizu saria, irailko ikasgai guztiak gaintu dituzu eta. Zorionak!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zergatik zara beti horren zakarra? Bada, jakin egizu: laztantsuagoa izanez gero, erraz topatuko duzu laguna, eta dagoeneko baldin badaukazu, zuzaz hobeto ibiliko da.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Azerketetan kopiatzea ez da txarra, ez gaiztakeria, egin bitartean harrapatzen ez bazaituzte behintzat. Hurrengoan ibil zaitetz adiago eta gorde hobeto txuleta hori!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Beti ametsetan zabilta eta ez lotan soilik, burua galduta zauden ordenagailu aurrean. Esnatu eta bizkortu beharko zenuke, urria iritsi da eta bada garaia, lanetik botako zaituzte bestela.



NORA EUSKAL HERRIA


Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Pluralean, gorputz dardarak eta konortea galtzea ezaugarri dituen eritasuna. 2. Errepikatuz, gorotza. Metalen arteko nahastura. 3. Bizkaieraz, bezala. Ezti egileak dira intsektu hauek. 4. Biloa. Erreka edo ibai baten gaineko igarobide. Lehenengo bokala. 5. Ez singularra. Oinarrizko edari. 6. Tantaloa ikur kimikoa. Emakumeen monasterio bateko emakumezko burua. 7. Bokala. Errusiako ibaia. ... aho, ahotik ahora. 8. Buru estalkia, kapelua. Hunki. 9. Ipar Euskal Herrian, almirantea. Kasik, abantzu. 10. Ipar Euskal Herrian, berritsuak, hitzontziak.

Goitik behera

1. Pluralean, eguzkiak urtebetean kons-telazioetan zehar eraten duen itxurazko zirkulua. 2. Katalanez, zartagina. Sortu zintuena. 3. Iodoaren ikur kimikoa. Zaren hori. Ogi txiki biribil. 4. Musika nota, eskalan seigarrena. Arauera. 5. Hitz, solas, berba. Trebeak, iaioak. 6. Ipar Euskal Herrian, arriskua. Gabarra txikia. 7. Arabako mendialdea. Ez eme. 8. Zuhaitz mota. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bokala. 9. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. Uso haragia. 10. Kokatzera behartuak, ipinaraziak.

Soluzioa

K	A	I	R	A	K	V	L	V	K
V	I	A	V	L	R	I	M	A	V
I	K	U	A	V	L	E	P	V	K
Z	O	H	V	I	B	O	I	A	I
V	S	E	D	V	A	B	V	A	T
R	U	A	V	L	R	A	U	L	P
V	A	I	B	I	V	E	L	I	A
K	V	E	L	R	E	Z	E	L	A
O	Z	I	O	A	V	A	L	V	K
K	A	I	S	I	A	K	E	P	I

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein da Getxon irailaren 2tik urriaren 3ra egon den argazki jaialdia?

Zein da esku artean duzun aldizkaria?

- **Bizarra Lepoan**
- **UK**
- **Katxiporreta**

> Aurrekoaren erantzuna: **Plentzia**
> Irabazlea: **Jorge Perales***

> Aurrekoaren erantzuna: **Motorra**
> Irabazlea: **Gartzen Zarraga***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*deitu telefonoz: 94 491 13 37



hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan



Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



GOI-ALDE DANTZA TALDEAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ERANDIOKO GOI-ALDE DANTZA TALDEA, 1965

Herriko jaietan, Andra Mari egunean 1965-08-15ean aurkeztu zen lehenengoz taldea (flasback uk 83), ez bakarrik egun horretako argazkian goian ikusten direnak; 45 urte, beraz, bete barri ditu. Hasiera ez zen erraza izan, baina ilusioak orduko egoera politikoa (Francoren garaia) eta diru laguntzarik eza gainditu zituen. Horregatik gogoratu behar dira taldeak aurrera egiteko orduan lanean ibilitakoak: Intxaurbe anaiak (Jose Luis eta Javier) eta Jose Luis Orbe dantzak irakasten, Mariano Loroño herriko abade larrabetzuarraren laguntza (berak erosi zituen taldeko lehenengo ezpatak). Eta gaur egungo taldeari lotutako langile beterranoenak ere ez dira ahaztu behar: Sorkunde Goikuria eta Jaime Urriaga (hasiera-hasierako dantzaria). Horrela, lan eginez heldu da Goi-Alde heldu den tokira: 150 dantzari inguru. Zorionak danoi! o

Ezkerrekoak: Jesus Maria Aio "Txetxin", Guillermo Berriatua.
Erdikoak: Felix Olabarrieta, Javier Bidarte "Tekla", Jose Felix Madariaga, Iñaki Goikuria (GB).
Eskumakoak: Jaime Urriaga, Joseba Elexpuru.

ARRATE ILLARO > bertsolaria

“Besteei utziko nieke protagonista papera, gurago nuke filmak sortu”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Ameslaria eta baikorra, behintzat saiatzen naiz nire burua konbentzitzen baikor izateko.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Gurago nuke filmak sortzea, beste batzuei utziko nieke protagonistaren papera.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Oraindik ikaslea naiz eta badaukat aukera gura dudana egiteko, baina gustuko nuke bidaiatzea.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Askok bezala astronauta, arkeologoa, aktorea, e.a.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Orduoro jatea, gura dudana aldi guztietan.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Ez dakit aitor daitekeen ere, baina azkenaldian badaukat ohitura txakurra ohe gainean, nire oinen parean etzanda daukadala lo egiteko.

Eguna ala gaua?

Eguna. Parrandek ere badaukate bere xarma egunez, gainera, energia gehiago daukat egunez, oso eguzkizalea naiz.

Zein da zure ametsetako bat?

Asko bidaiatzea.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Senide eta lagunik barik.

Parrandarik politenak non?

Adibidez Algortako Portu Zaharrea edota Lesakan, sanferminetan.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Oso kostaldekoa naiz, txikitan Urdaibaira joaten nintzen, Izaro, toki polita da. Bestalde, Sopelako hondartza gaineko larrea, itsasoari begira. ◦

LABURREAN— Bizkaiko Bertsolari Txapelketa abiatzeaz da eta Uribe Kostak emango du zeresanik, guztira eskualdeko bederatzi bertsolarik parte hartuko du eta. Xabi eta Fredi Paia finalaurrekoetan sartuko dira, azken txapelketa finala jokatu baitzuten; Jone Uriak irabazi zuen udabarrian Uribe Kostako txapelketa eta zuzenean sailkatu zen, gainontzeko seiak lortutako puntuei esker parte hartuko dute: Peru Vidal, Itxaso Paia, Aitzol de Castro, Joanes Igeregi, Beñat Vidal eta Arrate Illaro. Azken hori hobeto ezagutzeko baliatu gura izan dugu aukera. Algortarra da 21 urteko gaztea, eta ikus-entzunezkoen azken maila ikasten dabil EHU. Horrela ulertuko duzu hainbat erantzun.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gozatu euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahia goazela. Nor nahia gaudela. Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi nahi dugunean, geure erara. Euskara gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure giroan, gure artean euskaraz.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



XXVIII GETXO²⁰₁₀
ANTZERKI JARDUNALDIAK
JORNADAS DE TEATRO
URRIAK 15-24 OCTUBRE

15 ostirala / viernes

21:30 Plaza Santa Eugenia de Romo
DIVA DI PALO TeArto Teatro *castellano*

16 larunbata / sábado

12:30 Algotako Tallagorri Plaza
PARRANDAN Deabru Beltzak *euskara*

20:00 Escuela de Música de Las Arenas
COCIDITO MADRILEÑO 2 Glu-Glu *castellano*

22:30 Escuela de Música de Las Arenas
COCIDITO MADRILEÑO 2 Glu-Glu *castellano*

17 igandea / domingo

12:30 Algotako Tallagorri Plaza
IPUIN LAPURRA Antzezikizuna *euskara*

13:00 Escuela de Música de Las Arenas
CORRE PAYASA CORRE Panta Rhei *castellano*

18:00 Areetako Musika Eskola
TIRA! AURRERA Panta Rhei *euskara*

19:30 Aula de Cultura de Villamonte
PAREN EL MUNDO Simulacro *castellano*

22 ostirala / viernes

21:30 Plaza Santa Eugenia de Romo
EXODO En la Lona

23 larunbata / sábado

12:30 Algotako Tallagorri Plaza
ZIRKOA EZAGUTUZ Potxin eta Patxin *euskara*

20:00 Areetako Musika Eskola
AITAREKIN BIDAIA Hika *euskara*

24 igandea / domingo

12:30 Algotako Tallagorri Plaza
BASO ZORGINDUA Patata Tropikala *euskara*

13:00 Escuela de Música de Las Arenas
ALI Txalo *castellano*

18:00 Areetako Musika Eskola
ALI Txalo *euskara*

19:30 Aula de Cultura de Villamonte
PAREN EL MUNDO Simulacro *castellano*



bbk²

94 491 40 80
kulturea@getxo.net
www.getxo.net

sarean salmenta
venta de entradas

944 310 310
www.bbka.es
bbk²